

NASA YUWE HIZKUNTZA:

Nasa herria eta Euskal Herria,
elkarrekin hizkuntzak biziberritzen > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

EAJ-EH Bildu, amodiorik gabeko
sexuaren tabuaz MIKEL ZUBIMENDI > 11

2015eko urriaren 31 | IX. urtea • 440. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



GURE HERIOTZAREN JABE AL GARA?

NORBERAK BERE BIZITZA KUDEATZEKO DUEN ESKUBIDEA ETA BETEBEHARRA
LEHEN LERRORA EKARRI DIRA AZKEN HAMARKADOTAN. BAINA ZER GERTATZEN
DA HERIOTZAREKIN? NORAINO KUDEATZEN DU NORBERAK BERE HERIOTZA?

**Nasa herria eta Euskal Herria,
elkarrekin hizkuntzak
biziberritzen** 04

**Eskuin xenofoboaren garaipenak
suitarren irudi bukolikoa
kolokan jarri du** 08

Gure heriotzaren jabe al gara? 12

**Prekaritateak hamaika aurpegi,
denak duin bizi nahi dutenak** 18

**E.lkarrizketa: Elene Sorazu, EHUko
ikasle gorrek dituzten beharrez** 22

**Erronkariko gazta, Eroski SeleQtia
markaren babesean** 26

In Fraganti: Dardary 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Duela hogeitaz urteko lezioaren gaurko kronika
10 **Ander Gortazar Balerdi:** Bitartean zer egin
11 **Mikel Zubimendi:** EAJ-EH Bildu, amodiorik gabeko sexuaren tabuaz
16 **Ainara Azpiaz «Axi»**
17 **Mirari Martiarena:** «Oso pozik nago»
17 **Koldo Sagasti:** ...eta gaseztatu egin dute
20 **Arantxa Urbe:** LOMCE ari du, oraindik
21 **Amaia Nausia Poumelier:** Erreproduzio-Produzio
30 **Olatz Arbelaitz:** IEB 2015: Amesten al dute androideek ardi latx elektrikoekin?



{ datorrena } Iñaki Soto

Duela hogeiei urteko lezioaren gaurko kronika

Laster hogeiei urte beteko dira Javier Salutregi lehenengo aldiz ezagutu nuenetik. “Egin”-en Eziago industrialdeko egoitzan izan zen. “Gaztegin”-en garaiak ziren. Lehendabiziko aldi hartan egurra jaso genuen, erruz eta arrazoiz. Gerora, sarri oroitu dudakazetaritzari buruzko klasea eman zigun. Nekez ahazten den lezio horietako bat izan zen: zer zen eta zer ez zen kazetaritza, nori zuzentzen zitzaion egunkaria eta, zehatzago, gazteen astekaria, hizkuntzaren garrantziaz, formatuez... Zorrotz eta inolako paternalismorik gabe mintzatu zen. Hau asko eskertu nuen. Inozoak eta harroak ginen eta, batez ere, gauza biez erabat inkontzienteak ginen. Gaur egun inozo edo harro jokatzaren dugunean kontzienteak gara, sikiera. Ez da hau, ordea, gehien gogoratzaren dudak topaketa. Pixka bat beranduago, kide bat kolaboratzaile gisa hasi behar zen eta lehendabiziko artikularekin bertara joan ginen, berari zer iruditzen zitzaion galdetzeraz. Pilot boli-grafo urdin bat hartu zuen eta irakurtzen zuen bitartean artikulua goitik behera zuzendu zuen. Izenburua aldatu zion, parrafoak tokiz mugitu zituen, gramatika... Lagunak bazuen estiloa eta indarra –orain ere baditu; eta garai hartan ez berak ez nik ez genuen uste hemen amaituko genuenik lanean–, baina zuzenketa hark idazlana beste maila batera eramane zuen. Liluratu ninduela aitortzen dut. Bere lankide batek maiz esaten duenez, Salu «jenioa» da.

Esan bezala, garai hartan ez genuen inola ere ez uste gaur hemen amaituko genuenik. Esan dut: inozoak eta harroak ginen. Are gutxiago imajinatzen genuen, ordea, gaur Salu kartzelara jasotzera joango ginenik. Alegia, kartzelara joango zenik, “Egin” itxiko zutenik. Jakina, are gutxiago espero genezakeen gerora etorri den guztia. Bai ona bai txarra. Hau idazten dudanean, ostegunean, oraindik presente daukat goizean eman ahal izan dion besarkadaren beroa, inpotentziaren amorrua eta arduraren harrotasuna, garai hartako harrokeriaren oso desberdina. Zerbait ikasiko genuen, bada, bidean.

KARTZELATIK BUELTAKO GOGOETAK

Kartzelatik bueltan ginela, Guardia Zibilak kontrol batean geratu gaitu. Egia esan, bi kontroletan, bata bestearen

atzetik. Zentzugabekeria, edonondik ikusita. Nolanahi ere, Twitterren horren berri eman dugu. Zenbait kolegek –kazetariez ari naiz– berria zabaltzen dute eta, une batez, zenbaitentzat, Javier Salutregiren askatasuna edo “Egin”-en itxiera baino larriagoa zela zirudien. Agian, Salutregiren askatasuna aipatzeko bide onargarriagoa iruditzen zitzaion, besterik ez. Nolanahi ere, errua edo are damua ere ikusi dut nik mezu hauetan. Ez legoke gaizki, baldin eta nagusitasun moralala albo batean uzteko balioko balu. Beste zenbait ez dira ezta horretarako ere gai izan. Twitterren sarri isiluneek maiuskulek bezainbeste esaten dute. Kontakizunaren batailan, hemerrotekari begiratzuz, “Egin” auziaz limoi-tintaz idatzi dutenak gehiegi dira. Hogeiei urte beranduago, batzuk are harroagoak dira. A ze kontrastea Murga anaien, Pabloren, Teresaren, Zalakaren eta Elkororen apaltasunarekin! A ze kontrastea Salurekin!

Belaunaldien arteko transmisioaz ari ginela, idazlanen mugez aritu gara. Belaunaldi berriek beste gaitasun batzuk dituzte, zalantzarik gabe. Baina analfabetismo funtzionala onartzea suizidio politikoa da

Iruñera bueltan lagun batzuekin elkartu naiz. Tartean, gu baino gazteagoa den lagun batekin. Belaunaldien arteko transmisioaz ari ginela, idazlanen mugez aritu gara. Belaunaldi gisa, gu gara nerabezaroan egunero egunkaria bere pagarekin erosi zuen azkena, hori argi dago. Belaunaldi berriek beste gaitasun batzuk dituzte, zalantzarik gabe. Baina analfabetismo funtzionala onartzea suizidio politikoa da. Mahaiko guztiak ados geunden honetan. Zentzu horretan, prentsa idatzia da, hezkuntza zikloa amaitzen denean, gizartean kultura orokorraren maila sostengatzeko bitartekorik efikazena. Horretarako mailako kazetaritza behar da, baita babestuko duen komunitatea ere. Alde horretatik, pribilegiatuak gara.

Ez diot inori leziorik eman nahi. Nik jaso nuena kontatu dizuet, besterik ez. Gure lana, besteak beste, kontatzea delako. Salutregik esan zidan, duela hogeiei urte. •

NASA YUWE HIZKUNTZA

Nasa herria eta Euskal Herria, elkarrekin hizkuntzak biziberritzen

Nasa herria Kolonbiako hegomendebaldean bizi da, Andee-tako mendile-erroaren aldapa malkartsuen babespean. Kolonizazioak beharturik inguruotan barreiatu ziren arren, gaur egun Cauca deitutako lurraldean bizi dira batez ere nasak, izen bereko Cauca departamenduan.

Lurraldea beste zenbait herri amerindiarrekin partekatzen dute, baita euren burua kolonbiar ez-indigenatzat dutenekin ere. Nasek eurek diotenez, 400.000 inguru dira guztira, baina estatistika ofizialak 250.000 direla jasotzen du. Gogoan izan behar dugu herri amerindiarren artean sarri gertatzen dela jatorriarekiko lotsa edo “autogorrotoa”, eta, ondorioz, norberaren burua ez-indigenatzat hartzea.

Nasek betidanik egin diote aurre kolonizazioari, espainiarrek eginikoari zein ondorengoei, eta batez ere gaur egun errepublikano kolonbiarrek gauzatutakoari. Borroka horietan sarri bizitza, askatasuna, lurraldea, natura, sinesmena, kultura eta hizkuntza galdu dituzte.

Baina, oztopoak oztopo, orain dela 45 urte inguru, beste herri indigenekin batera CRIC (Consejo Regional Indígena del Cauca, www.cric-colombia.org) antolatu zuten, mugimendu indigena sendoa, ekimenez betetakoa eta arrakastatsua. Sortu zenean, erakundeak honakoa aldarrikatzen zuen: lurraren jabegoa berreskuratzea eta zabaltzea, herritarren askatasuna (latifundioetako ugazabekiko *terraje* edo mendekotasuna desegitea), herrietako aginte-erakunde indigenak (kabildoak) indartzea, lege indigenak ezagutaraztea eta ezartzea, jatorrizko kulturari eta identitateari eustea, irakasle indigenak trebatzea, herri ekonomia sendotzea eta ingurua jasangarritasun irizpideen arabera jagatea.

Badira zenbait urte eskumen mugatu batzuk bereganatu zituztela, hala nola, justiziaren arloan, hezkuntzaren kudeaketan, lurraldearen zaintzan eta osa-

 **KOLONBIA /** Arkaitz Zarraga

Euskaigintzaren laguntzaz, Kolonbiako nasa herriak bere hizkuntzaren biziberritze ahaleginean dihardu. Orain dela 50 urteko Euskal Herriaren antzeko egoeran aurkitzen diren honetan, bi herrien arteko elkarlanari ekin zaio. Helburua, ordea, nasak ahalduntzea da, ez Euskal Herriko eskola eredia kopiatzea.

sungintzan. Halere, borrokan dihardute, borroka latzean, kendu zitzaiena berreskuratu nahian eta onartu zaizkien eskumen mugatuak zaintzen.

Hizkuntzaren eta kulturaren arloan ere urrats batzuk eman dira; hala nola, 1991. urtean, Kolonbiako Konstituzioak nasa yuwe hizkuntza koofizialtzat onartu zuen, era sinboliko hutsean izan bazen ere. 1998an, berriz, CRIC erakundeak nasa yuwe hizkuntzaren estandarizaziorako lehendabiziko urratsa eman zuen, sistema ortografiko bateratua onartuz.

Hezkuntza-arloko eskumena baliaturik, eskola indigenetan PEBI egitasmoa abiatu zuten, hots, *Programa de Educación Bilingüe Intercultural*. Programa hori soilik aplikatzen da indigenek kudeatzen dituzten babesgune eta kabildoetan, hau da, eskola indigenetan. Haur indigenak bakarrik hartu ohi dituzten eskola horietan hizkuntza eta kultura indigenaren tokia astean bi edo hiru ordotara mugatzen da, betiere sei urtetik gorako haur eta gazteentzat. Gainera, sarritan, irakasleak berak ez dakien hizkuntza erakutsi be-

Nasa yuwe hutsezko eskola eredu pilotuan parte hartzen ari diren hainbat ume. Datuen arabera, adineko pertsonak dira nasa yuwe hizkuntza gehien hitz egiten dutenak.
Arkaitz ZARRAGA

har izaten du, PEBIren sarean nahitaezkoa delako curriculum nazionala aplikatzea eta irakasle-titulu nazionala izatea.

Baina mugimendu indigenak egina dauka egoeraren hausnarketa eta balantzea, eta aspaldian ari da esaten PEBI ez dela nahikoa hizkuntza, kultura eta identitate indigenak garatzeko eta sendotzeko; argi ari dira ikusten, oster, alderantzizkoa ari dela gertatzen, alegia, PEBIren bidez gaztelaniaratzten ari dela gizarte indigena.

HIZKUNTZAREN BIZIBERRITZEA ABIAN

Herri indigenek berezkoa dute kosmobisioa eta horri zuzenki lotuta dago hizkuntza. Biak ere izaeraren, identitatearen mui-nean daude. Horiek berreskuratut eta babestu barik ezin dute aurrera egin herri moduan. Hortaz konturatuta, hizkuntzaren biziberritzeari benetako bultzada eman behar diotela badakite. Nasak bide horretan lehen urratsak ematen hasiak dira.

2011n Caucako Iparraldeko eskualdeko CRIC kontseiluko Çxhab Wala Kiwe egitura sortu zen. Bertan, ACIN erakundeak



40 lagun izendatu zituen nasa yuwearen sustatzaile: *atpu'çxa-we'sx*. Nasa Yuwearen Haria deitzen duten atala osatu zuten. Lagun horien lana nasa yuwe hizkuntza sustatzea da: hiztunen eta indigenen kontzientzia sortzea, sentiberatzea, alfabetatzea, eskolan haurrei eta gazte-txoei erakustea, kalean aldarrikatzea... Urte berean, nasa herriarekin lanean ari zen lagun bat izendatu zuen CRIC kontseiluak Garabide Elkartek Euskal Herrian antolatutako Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa egin zezan. Hiru hilabeteko trebakuntza garatu zuen Vivianak, gerora euskaldunon lagun eta nasek abiatutako prozesuan gidari izango zenak. Horrela hasi zen euskaldunon eta nasen arteko elkarlana.

Indarrak metatuz, Caucako Iparraldeko eskualdean Nasa Yuwearen Hariak autodiagnostiko soziolinguistikoa abian jarri zuten. Ekimenaren helburua, datu soziolinguistikoak izateaz gain, herritarren kontzientzian eragitea ere bazen, hizkuntzaren eta egoeraren larritasunaz jabe zitezen, jarrerak aldatzeko asmoarekin. Horrela, etxez etxe, txabolaz txabola eta familiaz familia jardun zuten sustatzaileek datuak jasotzen eta sentiberatzen ereiten.

Autodiagnostikoaren arabera Caucako Iparraldean 96.000 nasa bizi dira, eta horietatik nasa yuwe hizkuntza %19k hitz egiten dute ondo, %6k zertxobait hitz egiten dute eta %14,5ek, ulertu arren, ez dute erabiltzen. Hala ere, galtzen ari den hizkuntzetan gertatzen den legez, adineko pertsonen artean hizkuntza gaitasuna askoz handiagoa da gazteen artean baino (ikus grafikoa).

Autodiagnostikoan datu asko bildu arren, aipagarriak dira etxeko nagusiei eginiko galdeketatik ateratako zenbait ondorio, hala nola, etxeko nagusien %34k hitz egiten dutela nasa yuwea, euren hizkuntza hitz egiteagatik ez dutela ez lotsarik ez beldurrik, harrotasuna baizik, eta herritarren %86k hizkuntza berreskuratzea beharrezkoa ikusten dutela. Baina badago da-

Kolonbiako Konstituzioak 1991n onartu zuen nasa yuwe hizkuntza koofizial gisa, erabaki sinboliko hutsa izan bazen ere. 1998an, berriz, sistema ortografiko bateratua onartu zuten

Hizkuntzaren erabilera datu kezkarriak tarteko, ekimen berriak abiatu dituzte: haurrentzako nasa yuwe hutsezko eskola pilotua eta helduentzako alfabetatze eskolak

tu kezkarri bat ere: zenbat eta maila akademiko handiagoa izan, nasa yuwe gaitasuna guztixitu egiten da (ikus grafikoa).

Datuok ikusirik sustatzaileak ekimen berriak abiatu zituzten hizkuntza sustatzeko. Horien artean bi dira aipagarrienak: haurrentzako nasa yuwe hutsezko eskola pilotua (*wasakwe-we'sx*) eta helduentzako alfabetatze eskolak (*kwe'sx yuwe yat*). Ekimenok Iparraldeko Toribio deritzan inguruan bultzatu ziren bereziki. Inguru horretan nasa yuwe hiztunak gehixeago dira eta nasak eurak ia populazioaren %100 dira.

EKIMEN BERRIAK MARTXAN

Ekimenok oso harrera ona izan dute nasen artean. Ilusioa eta

atxikimendua nabariak dira herritarren artean. Dagoeneko badira bi *wasakwe-we'sx* eta ehunka dira hizkuntza ikasten edo lantzen ari diren helduak. Murgiltze ereduan eta alfabetatzean erabiltzeko materiala ere sortzen ari dira. Baina arazoak ere handiak dira; hasiera-hasieratik jabetu ziren metodologian duten gabeziak. Apenas dagoen materialik edo ekoizpenik eskolatan erabiltzeko. Metodori ere ez dute, eta nola eraiki ere zail gertatzen zaie, gaztelaniaren bidea ez baitzaie egokia iruditzen.

Euskal Herrian orain dela 50 urte abiatutako bidea ezagututa, bi herrien arteko harremana estutzea ezinbestekotzat jo zuten nasek. Horretarako, Euskal Herriko Garabide Elkartarekin eta EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrarekin jarri ziren harremanetan. Beste bi nasa etorri ziren 2013an Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroa egitera, eta euretako batek nasa yuwe hutsezko eskola pilotua sendotzeko proiektua egin zuen.


Baina, Euskal Herrira etorritako kideei prestakuntza emateaz gain, nasa yuwe sustatzaileak trebatzea ere adostu zen. Hala, 2013tik aurrera urtero abiatu dira Caucako Iparraldeko Toribiora Euskal Herriko hezkuntza, materialgintza eta euskalduntze-alfabetatze adituak, lan boluntarioa egitera, Garabidek eta Unesco Katedrak hainbat euskal udalekin duten hitzarmenei esker (Durango, Elorrio, Leioa, Usurbil...).

Euskal Herrian orain dela mendi erdi bizi izandako egoerarekiko antzekotasunak ukaezinak dira. Ikastolen zein gau eskolen sorreran izandako mugimendua, garai hartan izandako gizarte aktibazioa, kultur sorkuntza ugaritzea... Hori dela eta, elkarlana fruitu politikak ematen hasia da.


Aurten hiru trebatzaile bikote izan dira udan Toribion. Batetik, uneotan indarrean diren *wasakwe-we'sx* bietako irakasle, laguntzaile eta gurasoei izan dira bi irakasle, murgilketa ereduan jatorrizko hizkuntzan egun osoz aritzeak eskatzen duen metodo-

Nasa yuwe hizkuntzaren erabileraren datuak

> HIZTUN KOPURUA, ADINAREN ARABERA



> HIZTUN KOPURUA, IKASKETA MAILAREN ARABERA





logia lantzen eta beharrezko material eta baliabide didaktikoak nola programatu eta egin irakasten eta elkarrekin eraikitzen. Irakurketa-idazketa eta matematikak norberaren hizkuntzan lantzeak erronkak dakartza eta horiei erantzuteko ezinbestekoa da irakasleak gaitu eta ahalduntzea. Zeregin horietan eta baliabideak prestatzen izan dira bi irakasleok. Aipagarria da gurasoeekin egin zuten egun osoko bilerara 100 guraso inguru bertaratu zirela. Orain dela hiru urte zazpi haurrekin abiatu zen prozesuak jada 100 gurasoren interesa piztu du!

Bestetik, helduen nasa yuwetze eta alfabetatze lanetan ari diren *atpu'çxawe'sx* hezkuntza sustatzaileek ere izan dituzte euren trebakuntza saioak. Nola diseinatu nasa yuwetzearen curriculum, nola bete edukiz aldeztu aurretik programaturikoa, zein metodologia erabili eta antzeko oinarritzko zereginak gauzatzen ahalegindu dira denon artean. Gainera, hausnarketa sa-

kona egin dute, euskaltegietan bidelagun izan ziren hainbat ekimen eta tresnaren inguruan.

Nasa herriarekin egiten ari den lankidetzaren bide honen helburua nasak ahalduntzea da, hizkuntza biziberritzeko estrategietan eta metodoetan nasak eurak ahalduntzea eta gaitzea. Bideak horrelakoa behar du eta ez bestelakoa. Eurak izan behar dira protagonista bakarrak. Kanpotik bertaratzeko garenak, kasu honetan euskaldunak, laguntzaile hutsak gara, deitzen zaigunean baino hurbiltzen ez ga-

Euren hizkuntza biziberritzeko nasen herriak egindako apustuak muga bat topatu du aurrean: metodologian gabezia handiak dituzte. Zentzu horretan, hainbat irakasle ahalduntzen lagundu du euskalgintzak. Arkaitz ZARRAGA

Euskal Herrian orain mende erdi bizi izandako egoerarekiko antzekotasunak ikusita, bi herrien arteko lankidetzari ekin zaio. Elkarlana fruitu politak ematen hasi da

Elkarlanaren helburua nasak ahalduntzea da, hizkuntza biziberritzeko estrategietan eta metodoetan nasak eurak gaitzea, ez Euskal Herriko eskola eredua kopia

renak. Argi dago gure herrian hizkuntzaren normalizazioan egindako bidea ez dela leku askotan gertatu. Hizkuntzen berreskurapenean jarritako gogo eta indarrek emaitza garrantzitsuak ekarri dituzte, munduan eredugarri izan daitezkeenak. Izan ere, euskaldunok badugu geure hizkuntzaren biziberritzeko bide zati bat eginda, hobeto edo okerrago, eta bide hori ezagutzea lagungarri izan daiteke gainerako herrientzat. Inola ere ezin daiteke betebeharreko eredua izan.

EUSKALDUNON ISPILUARI BEGIRA

Hizkuntza lankidetzak, gainera, norabide biko zubia izan behar du, euskaldunok eraikitako estrategia eta metodologia beste herriei partekatzeko bidea, eta gainerako herriek eraiki eta metatu duten jakituria euskaldunekin trukatzeko. Harrokeriarik gabe aritzea ezinbestekoa da, konturatu ahal izateko beste herri batzuek ere asko ikasten jarrai dezakegula. Beste

batzuen ispiluan ikus ditzakegu aurrera egiteko eman ditzakegun urratsak eta gure bidean izandako hutsuneak. Nasa herri hurbildu garen guztiok argi daukagu zer ikasi asko dugula.

Bestalde, aurreko lehen aldiz aritu gara nasa yuweren plan estrategikoa diseinatzeko laguntzen. Nasa Yuweren Hariko Toribioko arduraduna, Yu'kwe Pe'te, jabetu zen horren beharraz, hots, normalizaziorako bideak plan estrategikoa behar duela. Ahalegindu ziren lehenik aurre-diseinua eta proposamenak biltzen, baina aditu euskaldunekin partekatu nahi izan dute egitasmoa. Hala, hiru urtetarako plan estrategikoa diseinatu dute, orain agintariekin eta herritarrekin partekatu behar dutena.

Nasek argi daukate ez dutela nahi euskaldunekin duten harremana kolonizazio era berri bat izan dadin, euren ez dute gure eskola eredua kopia nahi. Nasek euren kulturatik eta kosmobisiotik eraiki nahi dute eskola eredu berria. Zeregin horre-

tan *thëjwalawesx* edo xamanen gidaritza lehenesten dute: naturarekiko errespetu ikaragarri eta sendoa, taldearen zaintza eta herria eraikitzea.

Euskaldunok eta euskalgingtzak zerbait egin nahi badugu munduko hizkuntza eta kultura aniztasuna jagoten, gure hizkuntza eta kultura zaintzeaz gain, eraikitako bidea partekatzen ikasi beharko genuke. Gainerako herriak gurea bezalako herri txiki batek eginiko bideak itxaropenez argitzen ditu, ilusioz, eta gehiago gu bidelagun izateko prest garela jakinda. Zailentzarik gabe, hor ere badugu zer esportatu.

Baina, gainera, ezin dugu ahaztu gurea bezalako hizkuntza txiki batek ezinbestekoa duela munduan itzaltzearen diren beste milaka hizkuntzek bizirautea gurea ere aurrera irtengo bada. Hizkuntza nagusiak txikiak baztertuz eta sarritan zapalduz egin dira handi, eta jokalekua euren neurrira eginda daukate. Ezin dezakegu pentsa ingurumaria horretan gurea uharte gutxietako bat izan daitekeenik. Txiki askoren indarrak emango digu bakoitzari behar dugun bizi-indarra eraikitzeko aukera.

Kooperazioaren munduan lan ederrak egin ditu Euskal Herriak, baina beharbada hausnartu beharko genuke pertsonen eta herrien pobretasuna eta bazterketa ezabatzen lagundu nahi badugu, euskaldunok ez ote dugun era kualitatiboan eragiteko aukera hizkuntza lankidetzaren bidetik. Herri indigenei euren hizkuntza eta kulturaren balioa eta prestigioa ulertzen eta aldarrikatzen lagun diezaiekegu, zeregin berean ari garela erakutsiz. Ulertarazi diezaiekegu kolonialismoaren zeregina izan dela euren barru-barruraino sinetsaraztea euren hizkuntzak eta kulturak ezertarako balio ez dutela eta mundu ustez modernorako oztopoa baino ez direla, geuri ere hori sinestarazi ziguten legez. Euren jendartearen hedatu samar dagoen jatorritik aldentzeko gogoia, inposatutakoa dela, gurean bezala, eta horren

aurrean ahalduztzea dela lehen urratsetako bat, jatorriaren balioetan sinestea. Gizonok eta emakumeok sortu eta eraiki ditugun kultura eta hizkuntza guztien ekarpena behar dutela gizarte berriek. Soilik horrela, erroetara joz, herri guztien jatorriarekiko balioak errespetatuz, prestigiaturaz eta sendotuz lortuko dugu, denon artean, pobretasuna eta bazterketa gutxitzea eta ezabatzea.

KOOPERAZIO LINGUISTIKOA

Kooperazio linguistikoa kooperazio modu eraginkorra da, herri bakoitzari bere duintasuna berreskuratzen laguntzeko. Herri indigenetatik salatzen duten gobernu kanpoko erakunde askoren kolonizazio modu berrien aurrean, herriak ahalduztzen eta burujabetzen lagun dezakeen bide eraginkorra.

Beharbada euskaldunok kooperazioaren arloan egin dezake-

Nasa yowe hizkuntza biziberritzeko 40 lagunez osaturiko taldea osatu dute. Taldekideon egin beharra funtsezkoa da: kontzientzia sortzea, alfabetatzean laguntzea, haur eta gazteei hezkuntza erakustea...
Arkaitz ZARRAGA

Nasek euren kulturatik eta kosmobisiotik nahi dute eraiki eskola eredu berria. Zeregin hori naturarekiko errespetuan, taldearen zaintzan eta herria eraikitzean oinarrituko dute

Hausnar dezagun indigenekin, hots, hizkuntza eta kultura propioak dituzten herriekin, pobreziatik eta bazterketatik ateratzeko bidea elkarrekin nola egin dezakegun

gun ekarpenaz ez gara jabetu, ezta euskal kooperazioaren arloko eragileok ere. Hizkuntza lankidetzaren eragin kualitatiboaz ere ez gara jabetu. Hona gure proposamena, beraz, euskalgingtzako, euskal kooperazioko eta erakundeetako eragileei: hausnar dezagun herri indigenekin, hots, hizkuntza eta kultura propioak dituzten herriekin, nola egin dezakegun bidea batera po-

breziatik eta bazterketatik modu eraginkorrean ateratzeko herri legez garatu ditugun jakituria eta esperientziak oinarri. Zabala da kooperazio sarea gurean, ugari kooperante abiatzen direnak, ugari euren denbora honetan inbertitzen dutenak. Ea udal eta erakunde guztiek baliabide esanguratsuak jartzen dituzte zeregin honetan. Asko gara ekiteko!



PARADISU SUITZARRA, LAUSOTUA

Eskuin xenofoboak hauteskundeetan lortutako garaipenak kolokan jarri du suitzarren irudi bukolikoa

Mendi elurtuen eta behiek lasai-lasai bazkatzen duten beldardi berdeen artean mundu mailako gatazka nagusietan neutraltasunari eusteko gai izan den herri baten irudi bukolikoa ekartzen digu gogora Suitzak. Legeak eta erabaki politikoak erreferendumen bidez hartzen dituen herria, demokrazia zuzena oinarri duena, kantonamenduek borondatez eratutako federazio batean antolatua...

Egia da Suitza munduko abertsenek beren ondarea ezkutatzeke aukeratutako paradisu fiskaltzat ere badugula, baina, oro har, herrialdearen irudi bukolikoa nagusitu ohi da. Bada, irudi hori kolokan jarri dute joan den asteburuan egindako hauteskundeetan emaitzek. UDC Zentroko Alderdi Demokratikoak, immigrazioaren aurkari sutsua, irabazi ditu hauteskundeak, Suitzar Konfederakundeko lehen indarra bihurtuz. Eta etorkinen aurkako diskurtso gogorra izan da igoera horren arrazoi nagusia, suitzar gizartearen gero eta ohikoagoa den jarrera xenofoba islatuz. Izan ere, migrazioa kanpainaren ardatza izan da.

AURREKO ERREFERENDUMAK

Azken hauteskundeetako ez da irudi bukoliko suitzarrak lausotzen duen lehen gertaera. Izan ere, egindako azken erreferendumetan hartutako hainbat erabakitan, suitzarrek pribilegioak defendatzen dituen Europako eliteko auzo aberats bateko herritarrak bailiran jokatu dute.

Horrela, joan den urtean aberats atzeritarrek zerga gehiago ordaintzeko proposamen bat atzera bota zuten erreferendum bidez. Gaur egun euren gastuen arabera ordaintzen dituzte zergak, ez irabazten dutenaren edo duten ondarearen arabera. Langabeentzako laguntzaren edota gutxieneko soldataren aurka ere agertu ziren suitzarrak. Gogora-

tu behar da ere Suitza munduan emakumeen botoa onartu zuen azken estatuen artean dela, 1971n egin baitzuen, erreferendum bitartez baita ere.

Oraingoan, UDC alderdi xenofoba Parlamentuko herena okupatzera eraman dute herritarrek, 200 eserlekutik 65 lortu baititu alderdi eskuindarrak, zituena baino 11 gehiago. Bere historiako emaitzarik onena lortu du UDCK: botoen % 29,5, alderdi suitzar batek inoiz lortutako ehuneko altuena. Botoen eta diputatuen arteko alde ulertzeko, Suitzako hauteskunde sistema proportzional konplexua izan behar da kontuan. Izan ere, hautesleek zerrendetatik izenak kendu edo hautagaiak nahasteke aukera dute besteak beste.

BELDURRAREN BOTOA

«Beldurra gidatu du jendearen botoa», azaldu du Rebecca Ruize hautagai sozialistak. Izan ere, kanpainan immigrazioa izan da gai nagusia. Eta hor, bere gai gogokoena izanik, oso eroso mugitu da UDC. Bere aldetik, Alderdi Sozialistak (PS), bigarren indarra, hiru eserleku galdu ditu, 43 eskuratuz. Eskuineko beste alderdiak, Liberal Erradikalen Alderdiak (PLR), hiru diputatu irabazi ditu, 33 eserlekura iritsiz.

Eskuin xenofoboak sorpresa emana zuen aurretik ere, 2014ko otsailean, «immigrazio masiboaren» aurkako erreferendumean lortutako arrakastarekin. Suitzako «interes ekonomikoak eta lehentasun nazionalak kontuan hartuta», etorkinentzako kuotak ezartzea onartu zen bozketa horretan. Horrela, UDCK aurretik Parlamentuak hartutako erabakia atzera botatzea lortu zuen, gainontzeko alderdien kontra. Halaber, aurretik meskitetako minareteak debekatzea eta delituen bat egiten duten atzeritarrak kanporatzea onartzea lortu zuen, beti islamaren mamua erabiliz.

Iazko erreferendumean benetako arazoak eta asmatutakoak nahastu zituen UDCK. Hala,

 **POLITIKA /** Pablo Ruiz de Aretxabaleta

Demokrazia zuzena eta paisaia berdeak batzen dituen herriak bere aurpegi xenofoboa erakutsi du azken hauteskundeetan. UDC eskuineko alderdiaren garaipenak immigrazioaren aurkako jarrera suitzarren artean gero eta hedatuago dagoela erakutsi du, etorkinak kanpainaren ardatz izan ondoren.

ohartarazi zuten etorkinen iritsiera arazo izango zela Suitzako azpiegiturak gainezka egingo zutelako, lurren prezioa eta alokairuak garestituko zirelako, soldatak jaitsiko zirelako, delituek gora egingo zutelako, enpresen izaera nazionala galduko zelako... Baina ezarritako etorkin kuotak Europar Batasunetik gero eta gehiago iristen direnentzat ere izango zirenez, Batasunean haserrea nagusitu zen,

eta, pertsonen zirkulazio librea bertan behera uztekotan, Bruse-lak Bernarekin dituen hitzarmenak ere bertan behera utz ditzakeela gogoratu zuen. Eta horrek arazo larriak eragin ditzake suitzarrentzat.

Suitzako Gobernuak orain 2017ra arteko epea du irtenbide negoziatu bat bilatzeko, baina gobernu berrian UDCK izango duen indarrarekin ez dirudi amore ematea erraza izango denik. Estatu frantsesean «iturgin poloniarren» beldur baziren Ekialdeko herriei mugak irekitzean, Suitzan «iturgin frantsesaren» beldur dira, asko baitira lanean gehiago irabazteko Alemaniatic, Italiatic edo Estatu frantsesetik muga pasatzen dutenak. Baina, hain zuzen ere, etorkin horiek jasotzen dituzten lurraldeetan izan zuen babes txikiena etorkinen kuotak ezartzearen proposamenak. Eta enpresariak –%3,5eko langabezi tasa izanik– eskulan beharraz ohartarazi zuten.

UDCKo hauteskunde kartelak belar metetan, Kuettingen hiriko sarreran.
Fabrice COFFRINI | AFP



sa izanik- eskulan beharraz ohartarazi zuten.

Suitzako irudi nostalgikoa erabiltzen duen UDCren mezu hori azken bi urteotan hedatu da. Izan ere, 2012an egindako beste erreferendum batean etorkinen kopurua %0,2an mugatzeko proposamena atzera bota zuten suitzarrek. Kasu horretan, Suitzako laku, mendi eta ibaiak babesteko argudioa erabili zuten, hainbeste etorkinekin arriskuan omen zirelako. Baina langile beharra nagusitu zen.

Suitzak ez du bizi izan Alemaniak edo Europako beste herri batzuek besteko etorkin iritsiera masiborik. Hala ere, immigrazioa arazo nagusi bihurtu da suitzarrentzat

Etorkinei ezarritako kuotak EBren haserrea eragin du. Eta Bruselak Bernarekin dituen hitzarmenak bertan behera uzteko mehatxu egin du. 2017ra arte dute negoziatzeko epea



Azken emaitzak ikusita, baina, immigrazioaren gaineko suitzarren pertzepzioa aldatu egin dela dirudi.


Hauteskunde kanpaina erabilitako kartelek erakutsi dute ondo baino hobeto UDCK etorkinekin duen jarrera. Alderdiko gazteek kaleratu zuten gogorre-na Vaudeko kantoian. Karikatura batean jihadistak bat agertzen zen, Europar Batasuneko besokoa soinean, Suitzako bandera zuen neska ileori bati burua mozteko prest. Atzean EBko bandera agertzen zen, eta, testuan, mezu argia: “Mantendu burua lepo gainean. UDCKri eman botoa”. Beste kartel batean, burka daraman emakume baten irudiaren ondoan mezu hau ageri zen: “Islama laster gure etxean?”.

IMMIGRAZIOA, SUITZARREN KEZKA

Suitzak ez du bizi etorkin iritsiera masiborik, Alemaniak edo Europako beste herri batzuek bezala. Eta, hala ere, immigrazioa arazo nagusi bihurtu da suitzarrentzat. Gfs.bern institutuak egindako inkesta baten arabera, suitzarren %48k uste dute asilo eskubidea eta immigrazioa Europar Batasunarekiko harremanetan lehentasuna duten auziak direla. «Ezin ditugu finantza publikoak eta gizarte aurrekontuak gainkargatu mugak irekiz, hainbat gazte hemen larrialdi egoeran daudenean», adierazi zuen Roger Golay diputatu hautatu berriak Genevan. Golay Genevako Hiritarren Mugimenduko presidentea da. Eskuineko alderdi horrek xenofobia izatea ukatzen du, baina «lehentasuna genevarrentzat» da bere oinarritzko helburua.

Bere garaipenaren ondoren, UDCK Gobernuan bigarren toki bat nahi du. Gaur egun ministro bat dauka. PSk eta PLRk berriz, bina. Sistema suitzarraren arabera, Gobernuak zazpi ordezkari ditu eta bost alderdi nagusien artean banatzen dituzte. Parlamentuak datorren abenduaren 9an hautatuko du Gobernu.

Estatu frantsesean pozik hartu du ultraeskuinak UDCren garaipena. «Europa osoan herriek ezetz esaten diote migrazioari »,



Christoph Blocher, irribarrez, mitin batean. Fabrice COFFRINI | AFP

CHRISTOPH BLOCHER, TONUA LEUNDUZ ARRAKASTA LORTU DUEN ALDERDIBURUA

Christoph Blocher UDCren burua izan da alderdiaren arrakastaren eragilea. Izugarri aberatsa den ezohiko politikari honek (3.300 milioi dolarreko ondarea omen du), egunoroko arazoetatik urrundu eta helburu eta ildo nagusiak ondo ezarritik lortu du arrakasta. 75 urterekin buru-belarri murgildu da hauteskunde kanpaina, mitinez mitin arituz. «Gure herria ondokoak baino egoera hobean dago, bai ekonomia arloan bai askatasunen arloan bai bizitza kalitatean. Aldiz, gainontzeko alderdiek Europar Batasunean sartzeko duten asmoak gure oparotasuna mehatxatzen du. Pertsonen zirkulazio librearek eta asiloaren kaosak kezkatzen naute», adierazi du. Suitzak sinatu duen Schengengo Itunaren aurka dago Blocher. «Kontrolak jarri behar dira mugetan. Hori ez da muga ixtea, muga kontrolatzea baizik», nabarmendu du kanpaina. 80ko hamarkadan Hegoafrikako *apartheid* sistemaren alde edo bikotean berdintasunaren aurka zegoen. Gaur egun jarrera horiek leundu ditu, hitzez bederen. «Segurtasuna eta bizitza arriskuan dutenentzat beti egongo da tokia Suitzan», adierazi du Europako errefuxiatuen krisiaren inguruan. Baina, hori bai, «errefuxiatu faltsuak», arrazoi ekonomikoek eragindakoak, kanpoan utzita. «UDC auziaz gehien arduratzen den alderdia dela ikusten du jendeak, eta, ondorioz, ez dute kanpaina egin beharrik ere izan, etorkinen krisiaren ondorioz kanpaina berez sortu delako», nabarmendu du Pascal Sciarinik Genevako Unibertsitateko irakasleak. Politologoaren arabera, «UDC oso azkarra izan da bere diskurtsoa pixka bat leuntzeko, oldarkor ez agertzeko, baina bere jarraitzaileek inbasio baten aurrean babesteko ematen diote botoa». Suitzara etorkinen migrazio fluxuak iritsi ez badira ere. Blocherren alaba ere, Magdalena Martullo-Blocher, diputatu hautatu dute inkestak irauliz. Toni Burnner UDCKo presidentearen arabera, Suitzako Gobernura ere irits daitezke etorkizunean, «baina oraindik goizegi da».



Ander Gortazar Balerdi - @derzu_uzala
Arkitektoa

Bitartean zer egin

Krisi ekonomikoaren ondorioen artean bada bat oso modu begi bistakoan azaleratzen dena gure herri eta hirietako kaleetan. Espazio hutsak dira, berpizte baten esperoan utzikeriak hartutako orubeak, eraikinak, etxebizitzak, lokalak, espazio publikoa.

Idea eta ekimen askotarikoak aurrera eramateko leku falta izatea, eta, aldi berean, milaka espazio abandonatu izatea, paradoxa baino, zentzurik ez duen egoera bat da. Gertatu egiten da, ordea, eta epe motzeko irtenbiderik ez duen hirigintza-arazo bihurtzen da: hiri ingurunea degradatu egiten da, eta konfort bisualak eta segurtasun pertzepzioak behera egiten dute.

Bitartean zer egin, izan liteke galdera. Behin betiko irtenbideak bazterturik, behin behinekoak sustatzea da Meanwhile Urbanism (Bitarteko Hirigintza) kontzeptuaren helburua. Izena Marcus Westburyk jarri zion Newcastle hiriko ekimen baten harira, baina sinonimoak ugari ditu: moldagarria, taktikoa, aldi baterakoa... adjektibo ezberdinak baina ideia bera, hots, azpierzabiltza dauden tokietan aldi baterako funtzio berriak garatu ahal izatea, auzoen bizitza dinamizatu eta ekarpenak egite aldera. **Bitarte horren kudeaketa bihurtzen da orduan gakoa, hardware esku hartzeak alboratu eta software esku hartzeak lehenestea, alegia.**


Ordenagailuen zati fisiko eta ukigarriei esaten zaie hardware, haren osagai elektriko eta mekanikoei, izan sagu, teklatu, disko gogor ala monitore. Hirigintza mailan, hardware esku hartzeak azpiegituren eraikuntzan oinarritutakoak lirakteke,

administrazioaren edo sustatzaile pribatu baten hirigintza-proiektu fisiko batean oinarritzen direnak.

Softwarea, aldiz, ordenagailuaren atal logikoa da, agindu sorta bat, ukigarria ez den inteligentzia. Hirigintzan, beraz, software esku hartzeak kudeaketa lehenesten du; espazio fisikoa herritarren inteligentzia kolektiboa aktibatzearen ondorio izango da, ez aurrebaldintza bat.

Krisiak “bitartearen” kontzeptua boladan jarri baldin badu ere, ideia ez da berria. Gaztetxeek, esaterako, espazio azpierzabiltza berpiztu eta aktibatu dituzte hamarkadaz hamarkada. Bilboko Zorrotzaurreko ZAWP guneak bitarte hori baliatzen jakin du hirigintza-plan zurrinago bat martxan jarri bitartean; erronka, akaso, planaren amaierako diseinuan eragitea. Donostian, Egia auzoko “espazioak aktibatze protokoloa” prestatu du Paisaje Transversal bulegoak Tabakaleraren Transitoak ekimenaren baitan eta bizilagunen parte hartzearekin.

Munduan zehar gauza ohikoa dena egunerokotasun administratiboan txertatzea falta da, ordea. Ekimen herritarrak araugintzaren aurretik doaz maiz, eta administrazio publikoak zailtasunak ditu politika horiek ahalbideratzeko. Alde batetik, arauak aurreikusi ez zituzten egoerak ebatzi behar dituelako egungo marko juridikoak. Bestetik, administrazio publikoak prozesuen tutelatzaile moduan ulertzen duelako maiz bere burua, goitik behera, eta, ondorioz, kosta egiten zaio erlazioetan oinarritutako behetik gorako kudeaketa batera ohitzea. Zerbait eskatzekotan, beraz, izan daitezen “bitartekari”, euskaraz hitz jokoa alde dugu-eta. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

EAJ-EH Bildu, amodiorik gabeko sexuaren tabuaz

EH Bildu eta EAJren arteko harremanaz pentsatzen dudak bakoitzean Serge Gainsbourg eta Jane Birkinen kanta zoragarri harekin akordatzten naiz. “Je t’aime, moi non plus”, askorentzat inoiz egon den kanta erotikoa, funtsean, sexu elkartzeko batean bi amorantek duten elkarrizketa imajinario bat da. Amodiorik gabeko sexuaren tabua xuxurlaka, modu iradokitzailean, aski esplizituki jorratzen du... “Zu zara olatua eta ni uharte biluzia”, “je vais et je viens, entre tes reins”, oso ederra den konposizioa osatuz. Omen, Dali artistaren aipu batean –“Picasso jenio bat da, ni ere bai; Picasso komunista da, ni ere ez”– oinarritu ziren kantari titulua emateko. Kontua da akordura datorkidala ezkerreko abertzaleen eta eskuineko nazionalisten harremana, ika-mikaz eta joera banderizoz lepo den harremanak baduelako sexuala den esplikazio bat. Aspaldi gabiltza ekuazio berean: independentziaren bidean, EAJ gabe oso zail; EAJ rekin, imposible, eta, beraz, EAJk diona dioela egin behar da aurrera. Goazen ala gatozen jakiteke... eta segi aurrera! Euskal senaren betiko ildoan: iraun; pazientzia eta konstantzia, bietan jarrai.

Eta Kataluniako independentzia prozesuaren argitara, are paralizanteagoa egin da ataka horren demontrea. EAJ non kokatu den jakina da: Espainiak aitortutako eta Espainian gozo egoteko nazio forala; “kontzertu ekonomikoa ala hil”; EAEn, EAJ-PSE, Nafarroan, posible balute, Geroa Bai-PSN nahiago, eta, Erkorekak esan berri duenez, arimetikak ahalbidetuko balu, Madrilen PP-EAJ-Ciudadanos. EH Bildu, bitartean, oraingoz berea baino ez den Euskal Bidean; “gu bakarrik bagoaz, aldebakar”. Kataluniakoa, baina, hain ezberdin eta orain hain berdina, ispilu dute biek. Biei sortzen dizkie Kataluniak inbidia eta desira bustiak. Biek ongi dakitelako, batzuen Eusko Legebiltzarreko ponentzia loriatsua eta besteen estrategia eztabaida ponposoa gorabehera, orri erdi batean idatz daitekeela zein den Euskal Herriaren aurrerabidea, martxan jarri beharreko prozesuaren nolakotasuna. Euskal herritarrekiko ez dagoela aldebakartasunik, eta, herritarren bultzadak, etsipen nazionalaren nagiak astinduko balira, aurretik eramant ditzakeela EAJ eta EH Bildu, baita beren kalkulu eta siglekiko atxikimendu madarikatu oro ere. Ikusi da Kata-

lunian. Posible da “Kataluniako EAJ” –hauteskunde plebisitarioren erdian Sabin Etxera gonbidatutako Duran i Lleidaren alderdia– legebiltzarretik kanpo geratu izana beldurgarri izatea jeltzideentzat, posible Junts pel Si eta CUPen artean, bietatik bat, erabaki beharra arazoa izatea EH Bildurentzat, posible dira mila kontu. Kataluniak, baina, erakutsi du bidea, arrastoa markatuta dago.

Carme Forcadell, Kataluniako bigarren autoritate asteton hautatu dutena, niretzat, Rosa Luxembourg bezalako iraultzaile handi bat da. Kataluniako iraultza trankil eta zentzuzkoa islatzen du. Mende honek ezagutu duen lehen iraultza kontsidera daitekeena. Berria eta berritzailea, bai. Ordena maite duen jendea eta antisistemak, igandero mezetakoak eta anarkistak, demokrata-kristauak eta ezker erradikalenetakoak... horiek denak barnebiltzen dituen altxamendu herritarra delako. Izugarri inspiratzailea, iraultzailea oso, benetan antioligarkikoa. «Neka-

Kataluniakoa ordena maite duen jendea eta antisistemak, igandero mezetakoak eta anarkistak, demokrata-kristauak eta ezker erradikalenetakoak... horiek denak biltzen dituen altxamendu herritarra da

tuko dira» jarrera espainiar nekosoaren aurrean, irudimena, talentua eta ausardia erakutsi duena.

Leninek «falsifikatu gabeko marxismoaren ordezkari bikainena» bezala deskribatu zuen Rosa Luxembourgek zioen kapitalismoaren demasiak zuzentzea ez zela kapitalismoa ezabatzea. Baina, erreforma ala iraultza, platerera saltsa beroa edo hotza botatzea bezala, ezin direla kapritxoz hautatu. Ipar eta Hego poloak lege, elkar baldintzatu eta osatzen direla. Erreforma iraultzen produktu dela, eta, iraultza, sorkuntza politiko baten ekintza. Erreforma ez dela iraultza luze eta nekagarria, ezta iraultza erreformen serie bat ere. Hari beretik tiraka, EAJk eta EH Bilduk badakite amets bera konpartitzeke, “maite zaitut, ezta nik ere” jarrerarekin, elkarrekin oheratu beharra izango dutela, noizbait, behingoz, Euskal Herria burujabe eta libre izango bada. •

{ txostena } Amagoia Mujika

GURE HERIOTZAREN JABE

Erabakitzen al dugu nola hil nahi dugun? Eta nolako agurra izan nahi dugun?

1960

Antropologoen 1960ko hamarkadan kokatzen dute inflexio puntua. Herritar zenbait modu desberdinean hasi ziren kudeatzen heriotzaren prozesua, bai hiltzeko unea bera eta baita hiletaren errituala eta lutoa ere.

1960ko hamarkadan bezala hiltzen. Baina jendarteko joera eta ohiturei begiratu besterik ez dago iraganeko ajeek indarrean dirautela ikusteko. Erlijio katolikoaren aginduak oraindik indartsu daude heriotza tartean denean. Izan ere, heriotza erlijio katolikoaren –gure jendartean oraindik nagusia dena, nahiz eta bestelako erlijioak gero eta bis-

takoagoak izan– monopolioa izan da, bere espezialitatea eta arlo kutuna, mende luzeetan nahi eran kudeatu duena. Eta hain juxtu belaunaldiz belau-naldi transmititu den eta egun oso bizirik dagoen heriotzaren aurreko beldurra tradizio erlijioaren ondorioa da. Finean, horren atzean dagoena infernuari zaion beldurra da. Hartara, Eliza

katolikoak kontrolatu du heriotzaren prozesua, «eta heriotza kontrolatzen duenak botere izugarria dauka».

Antropologoen 1960ko hamarkadan finkatzen dute inflexio puntua. «Aldaketak ez dira bat-batean etortzen, prozesu mantsoak dira. Baina hamarkada hori aipatzen da aldaketaren hasiera modura. Finkatutako estatusarekin desados zeuden herritarrak, inkorfomistagoak zirenak, modu desberdinean hasi ziren bizitzen eta kudeatzen bai hiltzeko fasea bera eta baita hileta eta ondorengo lutoa ere». Izan ere, hiltzeko prozesua –aipatutako hiru faseak kontuan hartuta– prozesu kulturala da, eta, kulturala den neurrian, denboran aldaketak jasan ditzake eta ikasi egin daiteke. «Hiltzen, errituala eraikitzen eta lutoa bizitzen ikasi egin daiteke. Horrenbestez, pertsonok aukera daukagu horretarako eta benetan garrantzitsua iruditzen zait hori nabarmentzea. Hiltzeko prozesua nola eraiki erabaki dezakegu».

HILETA GEHIENAK, ELIZAN

Hiltzeko uneari dagokionez, gaur egun jendartearen gehien-goak, %80tik gora, garbi dauka oso gaixo dagoen pertsonari duintasunez hiltzen lagundu behar zaiola.

Bestetik, erlijio katolikoaren eragina asko jaitsi da. Estatistika ofizialen arabera, egun herritarren %10 baino ez da mezetara joaten maiztasunez. Baina, datuak datu, hileta gehienak elizan egiten dira, bide erlijiosotik. Behin puntu horretara iritsita, Olaizolak galdera jarri du mahaiaren gainean; «hileta horiek zer dira ekintza erlijiosoak edo ekintza zibilak?».

Gaur egunean prozesu nabarmena gertatzen ari da Olaizolaren iritziz, «betiko forma tradizional batzuk mantentzen dira,

Aldaketa sozialek, kulturelek, politikoek eta ekonomikoek eragina daukate hiltzeko prozesuan. Beraz, eta baieztapen horretatik abiatuta, esan daiteke gaur egun jendea ez dela hiltzen 1960ko hamarkadan hiltzen zen bezala.

Gisa horretako gogoeta, zalan-tza, erantzun, galdera, hausnarketa sorta jantzia jaso du Iñaki Olaizola Eizagirre antropologoak “Muerte, ritual funerario y luto en Euskal Herria” liburuan. Lan mamitsua mahai gainean jarrita, Olaizolarekin hizketan aritu gara jendartean ezinbestean presente dagoen baina hizketaldietan ezkutu samarrean geratzen den heriotzaz.

Olaizola itsas ingeniaria eta antropologoa da. Erretiroa hartu ondoren hurbildu zen antropologiara, eta heriotzaren inguruan jarri zuen begirada eta bere ikerkuntzaren lupa. Izan ere, Olaizolaren iritziz nabarmena da heriotzaren inguruan existitzen den «defizit demokratikoa». Gure jendartea azken hamarkadotan ahalduz prozesu interesgarria egiten ari da. Norberak bere bizitza kudeatzeko duen eskubidea eta betebeharra lehen lerroa ekarri dira; eta pertsona orok bere bizitzaren proiektu pertsonala modu arduratsuan eta koherentean jostearen garrantzia nabarmendu da. Baina, zer pasatzen da heriotzaren prozesuarekin? Noraino kudeatzen du norberak bere heriotza? Noraino erabakitzen du nola hil nahi duen eta zein hileta edo agur mota nahi duen?

HERIOTZAREN KUDEAKETA

Olaizolaren ustez egungo jendarteak «pauso bat aurrera eman» eta heriotzaren kudeaketa bere gain hartu beharko luke, bizitzaren beste etapa bat den neurrian. Eta heriotza hiru fase-tan banatzen du antropologo donostiarrak: hil aurreko fasea eta hiltzea bera; hileta errituala, eta, azkenik, ondorengo lutoa. Jar dezagun arreta hiletaren erritualean.

Hasierako baieztapenera bueltatuz; gaur egun jendea ez da

Tolosako elizan izandako hileta baten irudia. Elizen eraikinek solemnitaterik handia daukate hiletaren errituala sortzeko orduan. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS





Nestor Basterretxea
artistaren agur zibila
Donostiako Zorroaga elizan
izan zen.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

baina erritual horien zentzua erabat aldatu da. Hileta batera zoazenean, nahiz eta elizan izan, ekintza sozial batera zoaz. Azaletik begiratuta formak mantentzen direla dirudi, baina esanahia oso desberdina da. Oso jende gutxi sinesten du hiletetan elizan ematen den diskurtsoa. Apaizak berak ez du sinesten, baina dotrinak horrela jasotzen du. Elizaren kosmologian aldaketa ematen ari da; dagoeneko ez dute zeruaz eta infernuaz hitz egiten eta bazen garaia. Ikaragarria da zeruaren eta infernuaren ideiak zenbat min egin duen eta zenbat sufri-mendu eragin. Baina dagoeneko heriotza ekintza zibila da».

Egun jendarteak heriotza nagusiki ekintza zibila bailitza bizi badu ere, artean hileta gehienak tradizionalak dira, nahiz eta dagoeneko ez duten garai bateko pisu erlijiosoa. Belaunaldi gutxiren buruan pasatu gara eredu tradizionalatik eredu biografikora, nahiz eta oraindik orain gutxiengoa izan hileta zibil eta biografikoen alde egiten duena. Aldaketa mantso doa.

«Nik hileta erabiltzen du erritual erlijiosoei buruz eta zibilei buruz hitz egiteko. Zergatik ez ditugu erabiliko zentzua daukaten hitzak? Moldatu egin behar-

ko dira, dimentsio berri bat eman, baina betiko hitz horiek erabiltzeari ez genioke uko egin behar», argitu nahi izan du antropologoak. Ekintza zibila izanagatik, Olaizolaren ustez garrantzitsua da heriotzaren inguruko errituala eraikitzea. «Heriotzaren ondorengoari erritualaren zentzua eman behar diogula iruditzen zait. Ez da soilik ekintza errepikakorra izan behar, sinesgarria ere izan behar du eta talde izaera sortzen duena».

NOLA KUDEATU HILETA ZIBILAK?

Erritualak eraikitzeke baldintza zenbait garrantzitsuak dira. Antropologiaren ikuspegitik, «lekuak» eta «ez lekuak» daude eta erritualak lekuetan egin behar dira. «Aireportu bat, esaterako, 'ez leku' bat da. Eta sinestun ez den batentzako eliza bera 'ez leku' izan daiteke. Hileta erritualak 'lekuetan' egin behar direla iruditzen zait; gozotasuna, begiratuak, zerbaiten parte zaren sententzioa... horrelako sententziak sortzen diren tokietan».

Erritualaren beste baldintza bat solemnitatea da. Batzuek «katedral zibilak» proposatzen dituzte hileta edo erritual zibil horientzako. Eta Euskal Herriko hainbat herritan badira propio

hileta zibiletarako atondutako gunek.

«Hileta zibilak egiteko gune berriak eraiki behar al dira? Galdera hori egin beharko genioke gure buruari. Bestetik, hileta zibil bat frontoi batean egitea ondo dago hildakoa pilotaria baldin bada, baina gainontzean frontoia 'ez leku' bat izan daiteke, ezta? Nik uste dut daukagun ondasun arkitektoniko erlijiosoa izugarria dela eta hori probestu beharko genukeela, guztion delako, herriarena».

Sinestun ez den askok aitortzen du herriko eliza izugarri polita edo solemnitate handikoa dela. Hartara, Olaizolak ondoko proposamena dakar: Erabil dezagun elizako ondasun arkitektonikoa –kontuan izanda publikoa dela, herriarena, eta ez pribatua– hileta zibilak egiteko.

Bide horretan, Olaizolak lau pauso edo proposamen jartzen ditu mahai gainean. Batetik, trantsizio moduko bat egitea. «Elizak erritualean ez du bere lana ondo egiten. Hil den pertsona ezagutu gabe aritzen da, ez du diskurtso sinesgarria eraikitzen. Gainera, ez dago apaiz nahikorik bere lana ondo egiteko. Elizak ez dauka giza baliabiderik dauden hileta guztiei txukun erantzuteko eta, gainera, ez

dauka diskurtsorik. Elizari bere diskurtsoa hutsa geratu zaio. Horregatik egoki ikusten dut hileta elizan egitea, baina diskurtsoa hildakoaren familiak edo lagunek egitea, ez apaizak».

Olaizolaren ustez hileta erritual batean diskurtsoak *in memoriam* bat izan behar du; pertsona horren bizitza errepasatu behar da, non jaio zen, zer egin duen bere bizitzan, zertan sinesten zuen, zein ziren bere balioak, zeintzuk izan diren bere momentu onak eta txarrak... «Tradizioak ez dira bat-batean sortzen, tradizioak eraiki egiten dira. Eta akaso denborarekin *in memoriam* diskurtso horiek osatuko dituzten profesionalak ere ezagutuko ditugu».

Bigarren proposamena: «Euskal Herriko eliza bakoitzak bi administratzaile izan beharko lituzke; bat erlijiosoa eta bestea zibila. Eraikinaren harriek ez diote esanahia ematen eraikinari, egiten den erabilpenak baidzik. Eta zergatik ez ditugu erabiliko elizak, herriaren ondasun direnak, agur zibilak egiteko? Betiere, hala nahi dutenen kasuan, noski».

Izan ere, badira elizaren solemnitatea gustuko duten herri-tarrak eta, nahiz eta sinestun ez izan, azken agurra bertan gustu-

Lekua

Hileta zibiletan erritualak eraiki behar dira. Horretarako, garrantzitsua da «lekuak» eta «ez lekuak» bereiztea. Erritualek «lekuak» behar dituzte, gozotasuna, hurbiltasuna, zerbaiten parte izatearen sentipena sortzen duten tokiak.

ra egingo luketenak. Eta badira elizarekin inongo loturarik izan nahi ez dutenak eta beren hiletak eraikin horietatik urrun egin nahi dituztenak. Hartara, Olaizolak begi onez ikusiko luke elizaren eraikinak bi adminis-tratzaile izatea eta bertan ekin-tza erlijiosoak eta ekintza zibi-lak antolatzeko aukera egotea.


Hirugarren proposamena: «Adibidez, Donostiako Alde Za-harrean Santa Maria eta San Vi-cente elizak ditugu, elkarren on-doan. Zergatik ez erabili bat erritual zibilak egiteko eta bes-tea erritual erlijiosoak egiteko? Euskal Herriko elizak era horre-tan banatzea posible da eta ez da inoren eskubiderik zapal-tzen. Alderantziz, herritar ba-tzuen eskubideak aitortzen dira. Elizak herriarenak badira, zerga-tik ezin dira herritar guztien es-kura egon?», iritzi dio.

Laugarren aukera: badira eli-zako harriek berek kalanbrea eragiten dieten herritarrak. Ho-rientzako beste aukera bat eraiki beharko da, elizatik aparte baina «leku» diren tokiak atondu be-harko dira hileta zibilak txukun, duin eta solemnitatez egiteko.

HILETA ZIBIL BAT ANTOLATZEKO LANA
Norbait hiltzen denean inguru-koei egun korapilatsuak bizitzea egokitzen zaie, bai emozioen al-detik eta baita antolaketa alde-tik ere, azken agurra kudeatzea eta bestelako paper kontuak konpontzea egokitzen baita. Egoera hori izanda, bide erraze-na ohikoa da, elizakoa. Besteak, hileta zibil edo biografiko bat antolatzeak, bestelako lana da-kar. «Hiletaren errituala antola-tzeak talde lana eskatzen du. Se-nideak eta lagunak oso garrantzitsuak dira hori antola-tzeko orduan. Norbaitek egin behar du deialdia, errituala non egin erabaki, diskurtsoa eraiki... Ez badaukazu talde familiar eta talde sozial indartsurik, zaila da hileta zibil txukun eta sinesga-rririk antolatzea. Baina merezi du ahalegina egiteak, emaitza zoragarria izan daitekeelako».

Frogatuta dago, gainera, hile-taren errituala ondo antolatua, mimoz egina, egiatakoea eta hil-dakoaren bizitzarekin koheren-

Lutoa da heriotzaren prozesuan azken fasea. Mingarria eta gogorra izanagatik, adituek garrantzi handia ematen diote fase hau ondo osatzeari. GAUR8



tea denean, izugarri laguntzen duela ondorengo fasean, lutoa-ren fasean.

Izan ere, hiletaren errituala-ren ondoren heriotzaren proze-suaren hirugarren fasea dator: lutoa. «Garai batean lutoa zen gizatalde horretara normaltasu-na bueltatzeko behar zen den-bora. Pentsa zer zen garai bate-an emakume batentzat senarra hiltzea ikuspegi ekonomiko ba-tetik; edo berdin etxeko andrea hiltzea senarrarentzat. Eta ohi-koa zen alarguna familiako bes-te kideren batekin ezkontzea. Ez zen bera ezkontzen, ingurukoek ezkondu egiten zuten, familiara edo taldera normaltasuna aha-lik azkarren buelta zedin. ‘Bai, hil egin da, baina hurrengo egu-nean behiak berdin-berdin jetzi behar dira’. Eta ikuspuntua hori zenez, ez zen gehiegi lantzen su-frimendua, hutsunea, pena...», azaldu du Olaizolak.

Egun desberdina da lutoa, in-guruko norbaiten heriotzaren ondorengo denbora tartea. Pisu handiagoa hartu du penak, tris-turak, hutsunearen sentipenak. Hala ere, Olaizolak zehaztaperen garrantzitsua egin nahi izan du: «Pentsatzen da heriotza batek beti dakarrela pena eta tristura. Kontuz horrekin. Badira etxa-fuegoekin hartzen diren herio-tzak, ospatu egiten direnak. He-riotzak ez du beti ekartzen pena ikaragarri hori. Eta garrantzi-tsua da hori esatea, pertsona as-

kori erru sentsazioa sor baita-kioke inguruko norbait hil on-doren ‘behar bezain’ triste ez sentitzeak».

Baina lutoak ez dakar pena bakarrik –pena dakarren kasue-tan–, pobrezia ere badakar, «ba-tez ere adineko bikoteen ka-suan», eta mendekotasuna. «Behin adin batean sartuta, gal-tzerdiak janzteko, ohetik altxa-tzeko edota sukaldeko goiko ar-mairutik zerbait jaisteko norbaiten laguntza izatea beha-rrezkoa da. Adineko bikote as-kok elkarri laguntzen diote eta tirrika-tarraka moldatzen dira. Baina, bietako bat falta dene-an?».

AHALIK ETA AZKARREN

Lutoaren epea normalean ez da samurra izaten. Baina derrigo-rrean pasatu beharreko epea da, gainditu beharrekoa. Olaizola-ren ustez azken urteotan joera kezkagarri bat ematen ari da, lu-toa gehiegi «medikatzeko» joe-ra. «Helburu nagusia bihurtu da ahalik eta azkarren normaltasu-nera bueltatzea, ahaztea, tristu-ra gainditzea eta fase hori pasa-tzea. Zergatik?».

Izan ere, gure jendartearen bi-zien eta hildakoen arteko harre-mana ez da erraza, elkarbizitza hori korapilatsua da, «ez daki-gulako zer egin hildakoekin». Badirudi duela hamarkada ba-tzuk harreman hori sanoagoa zela, hildakoak etxean egoten

ziren, normaltasun handiagoz bizi zen egoera...

«Beste herrialde batzuekin konparatuta, Euskal Herrian oso azkar lurperatzen edo errausten da hildakoaren gorpua. Legeak esaten du gutxienez 24 ordu pa-satu behar direla gorpua lurpe-ratu edo errausteko. Euskal He-rrian, kasurik gehienetan, 25 ordu pasa orduko eginda dago. Ipar Europako herrialde zenbai-tetan bizpahiru egunez izaten dira elkarrekin hildakoaren gor-puarekin. Patxada askoz handia-goiz bizi dute heriotza», azaldu du Olaizolak. Egunotako arau bihurtuta dago, beraz, hildakoa-ren gorpua lehenbailehen pare-tik kentzea eta lutoa ahalik eta motzena izatea. «Tristura bizi-tzea, norbaiten hutsunea senti-tzea eta faltan sumatzea erabat sentimendu sano eta naturala da, eta sentitu beharrekoa».

Izan ere, lutoa bizitzeko modu berriak, heriotzaren unea eta ondorengo errituala bezala, oraindik eraikitzen ari dira. «Aukera guztiak posible dira. Lutoa lehen baino askoz ere konplexuagoa da, pertsona ba-koitzak bere modura bizi duela-ko eta esanahi propioa ematen diolako».

Garbi dago heriotzaren proze-sua eraikitzen baduela lana gaur egungo jendarteak, bere fase guztietan gainera; hiltzeko une-an, hiletaren erritualetan eta ondorengo doluan.

Eliza

Iñaki Olaizola antropologo donostiarrak hileta zibilak elizetan egitea proposatzen du. «Elizaren ondare arkitektoniko ederra publikoa denez, zergatik ez jarri herritar guztien eskura?».

1,5€
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN




DAGOENeko

ZURE KIOSKOAN SALGAI



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

PROZESUAK



iRRITZIA:



Ainara
Azpiazu
«Axi»

«Oso pozik nago»

Mirari Martiarena

Esaldi horixe behin eta berriz errepikatzen duen emakume zoragarri bat ezagutu nuen duela urtebete. «Oso pozik nago» errepikatzen du behin eta berriz, hitzekin, irribarrearekin eta begiradarekin. Behin onartu zigun txorotzat hartu izan dutela hori askotan esaten duelako eta ez nuen ulertu zer esan nahi zuen.

Ia urtebeteren bueltan neronek sentitzen dut oso pozik nagoela. Indartsu, irribarretsu, distiratsu sumatzen dut nire burua. Arraroa egiten zait neure burua horrela ikustea, baina ez dut ukatuko oso gustuko dudala sentimendu hau. Eta orain ulertzen dut jendeak txorotzat hartzearen kontzeptua. «Zer moduz zaude?» galderari «oso pozik na-

go!» erantzuteak harridura sortzen du. Badirudi ezin dela ozen esan edo beti espero dugula ondokoa gu baino okerrago egotea. Horrela gure buruari esango diogu ez gaudela hain gaizki. Iruditzen zait ez gaudela ohituta bestearen poztasunarekin bat egiten eta horregatik sortzen dela harridura «oso pozik nago» esatean zergatia arrazoitzen ez dakizunean.

Inoiz baino barre algara gehiago egiten ari naiz. Irri errazekoa naiz berez eta ez dut askorik behar izaten barrez lehertzen hasteko. Ni naiz lehena nire buruari barre egiten eta eginarazten.

Egunerokoa umoretsu hartu eta datorrena datorrela saiatu irribarre egiten. Barre egitea osasuna omen da eta onura

asko omen ditu. Ez naiz ni zientzialariek eta medikuek esaten dutenaren kontra hasiko. Ikerketa asko egin dituzte horri buruz. Ez dakizkit zehatz-mehatz zeintzuk diren onurak, baina niri barre egiteak pozik egoten laguntzen dit. Eta pozik egoteak barre egiten laguntzen dit. Egun txarrak, momentu txarrak, badaude, noski, baina oso pozik bazaude ez dira hainbeste izaten.

Irri egiteak ateak irekitzen ditu eta irribarre batek gehienetan du bueltan beste irri bat. Oso pozik zaudela sumatzen baduzu esan beldurrik gabe, ez lotsatu. Galdetu dizunak ulertzen ez badu ez baita zure arazoa. Eta garrantzitsue-
na, onar iezaiozu zure buruari oso pozik egoteko eskubidea. •

...eta gaseztatu egin dute

Koldo Sagasti

Gas the arabs” (Arabiarrek gaseztatu) zioen etxe atarian kolonoek egindako pintaketak. Hashem Az-zeh, hala ere, ez zen kikiltzen diren horietakoa, eta probokazio puntu batez erakusten zien bisitariei grafitia, egileen begirada mehatxarien aurrean. Medikua zen, UNRWA agentziarako egiten zuen lan, harik eta Osloko Akordioek ezarritako banaketaren ostean bere familiaren etxea kolonoen eremu barruan geratu zen arte, Tel Romeida auzoan, Al Khalilen (Hebron).

Orduan, New Yorkeko Brooklyn auzoko fanatiko talde batek bere bizitokia inguratu eta lurra lapurtu zion. Baina berak ez zuen amore eman eta amaren etxeari eu-

tsi zion. Etxe barruko atxilotze agindua ezarri zioten, eta, ondorioz, lana galdu zuen. Geroztik, Nasreen emazteak egin eta saltzen zituen margolanak bilakatu ziren familiaren diru iturri bakarra.

Hashemek, bitartean, auzora iristen ziren nazioarteko brigadista eta bidaiari solidarioentzat gidari lanak egiten zituen. Inork baino hobeto erakusten zien bisitariei kolono fundamentalisten mehatxupean bizitzea zer den: bere lau seme-alabek egunero eskolara joan ahal izateko nola pairatzen zituzten sionisten erasoak, geratzen zitzaion olibondo bakarraren uzta jaso ahal izateko nola saihestu behar zituen auzokoen harrikadak... Az-zeh familiak pairatzen zuen jazarpena etengabe-

koa zen. Nasreeni bitan eragin zioten abortua auzokoei, gaez etxean sartu eta haurra galtzerainoko jipoia emanez, Hashemi ere hortzeria osoa apurtu zioten gaueko oldarraldi horietako batean... Baina, hala eta guztiz ere, Az-zeharrek arbasoen bizitokiari eusten zioten. Etxe horretan bertan hartu ninduen azkenaldian halaxe esan zidan Hashemek: «Ez naute sekula hemendik ateraraziko».

Urriaren 21ean, manifestazio batean Israelgo Armadak jaurtitako gas negar-eragilearen ondorioz hil zen Hashem. Kolonoek halaxe iragarri zioten atari aurrean egindako pintaketan: “Gas the arabs” ...eta azkenean gaseztatu egin dute. Agur eta ohore, Hashem! •

PREKARITATEAREN AURPEGIAK

Prekaritateak hamaika aurpegi anonimo ditu, baina hauen atzean pertsonak daude, duintasunez bizi nahi dutenak

Silvia, Emilio eta Araceli dira eurak, prekaritatearen hiru aurpegi. Soldata duinen aldeko eta prekaritatearen aurkako ekimeneko kideak dira, eta sindura bilketa bat abiatu berri dute Interneten gutxieneko 1.200 euroko lansariaren alde. Telekomunikazioen langilea –Movistarren azpikontrata bat– da Silvia. Zortzi ordu egiten ditu lan egunean, astelehenetik igandera bitarte, eta 900 euroko lansaria jasotzen du hilean. Emilio, berriz, eraikuntzako langilea da. Egunean hamar ordu egiten ditu lan, obra amaierako kontratu batekin, eta hilean 1.056 euroko soldata jasotzen du. Kolektibitateko langilea da, aldiz, Araceli. 20 urteko antzinatasuna du atzean, eta 1.100 euro jasotzen ditu hilean, urtean egiten dituen 1.750 orduen truke.

“Mintza gaitezen soldatei buruz. Mintza gaitezen prekaritateari buruz” diote euren manifestuan, eta horretaz hitz egin dugu eurekin. «Bizi al gaitezke gaur egun ordaintzen diren soldatekin?», galdetu du Silviak. Azaldu du badirela hilean 800 edo 900 euro kobratzen dituzten pertsonen adibideak, baita lanaldi partzialean 300 euro jasotzen dituztenenak ere. «Zaila da horrela bizitzea. Gure ustez prekaritatea diru falta edo soldata txikiak baino askoz gehiago da. Baina, era berean, denok dakigu dirurik gabe ezin dela bizi, gauzek dirua balio dutela, fakturak ordaindu behar direla, hipotekak, alokairuak... eta zertarako iristen da aurrez aipatutako soldatekin?», adierazi du.

Horri gaineratu dio Aracelik, tamalez, ez zaiela bizitza autonomo eta libreak izateko iristen. «Enplegua erregulatzeko espedienteak, langile ebentualak, enplegu ez egonkorra, autonomoak, atzerrira doazen gazteak... Eta hori guztia gutxi balitz, ia-ia eskubiderik gabe», azpimarratu du. Gaineratu du aipatu errealtatea edonon antzeman daiteke-

 **JENDARTEA** / Aimar Etxeberria Korta

Prekaritatearen hiru aurpegi baino ez dira Silvia, Emilio eta Aracelirenak. Lagin txiki bat izanagatik ere, gaur egungo egoeraren isla dira. Soldata duinen aldeko eta prekaritatearen aurkako ekimeneko kideak dira, eta 1.200 eurotik gorako lansaria eskatzen dute: «Ez dugu asko eskatzen; ez dugu miserian bizi nahi».

ela, urrutira begiratu gabe: «Bakoitzaren herrian, etxeko atarian, lagun taldean, familian... Bada garaia guztion artean begiak irekitzeko».

Horretan dihardute eurek, horretarako abiatu dute soldata duinen aldeko eta prekaritatearen aurkako ekimena. 1.200 euroan finkatu dute soldata duin baten minimoa. Ez dute uste gehiegi eskatzen dutenik: «Gaur egun jende askok irabazten duen miseriaren gainetik dago, baina besteen lanari esker aberasten diren horien diru sarreretatik oso azpitik,

ordea». Hala ere, ez dute zifraren gaineko eztabaidan kateatu nahi. Horren harira, adierazi du Silviak jakin badakitela kopuruarena eztabaida daitekeen zer bait dela, «ezin du *totem* bat izan», baina gaineratu du eurentako asko 1.200 euroko zifratik oso urrun daudela. «Horregatik diogu hortik gorakoa izan behar duela», azaldu du.

Haren esanetan, jendeak 1.200 eurotik gorako soldata ziurtatua izango balu beste egoera batean egongo ginateke: «Ez dugu uste berehala aberastuko ginatekeenik, baina gustura hartuko genituzke hilean 1.200 euro oinarriko beharrianak duintasunez estaltzeko». Hortik behera, zailtasunak ikusten ditu bizitza duin bat garatzeko orduan, «argia ordaintzeko orduan, maileguari aurre egiteko orduan, hozkailua betetzeko orduan edota haurrei eskolaz kanpoko ekin-tzak ziurtatzeko orduan».

PERTSONAK DAUDE ATZEAN

Zenbaki eta egoera guztien atzean, ordea, pertsonak daude. Errealtatearen ispilu dira eurak, eta errealtate horren inguruan gogoeta egin dute. Aurrez aipatu bezala, eraikuntzan egiten du lan Emiliok, baina dio bere inguruan badela eskubideak aldarrikatzeagatik kale gorrian gelditu denik ere. Bere egoerara itzuliz, galdetzen du ea zilegi ote den 1.100 euroko soldata jasotzea hilean 220 ordu lan egitearen truke. «Ordua ez da bost eurora ere iristen. Esklabo



bihurtu nahi gaituzte», salatu du.

Aracelik ere bere egoeraren gaineko gogoeta egin du: «Lanaldi oso bat lortzeko egun guztia lanean igaro behar dut, goizeko lehen ordutik arratsaldeko azken ordura. Nola izango dut bada bizitzarik lanaz harago?», adierazi du. Hori gutxi, jasotzen duen soldata prekarioaz ere kezka da, baina, behintzat, soldata bat izateko aukera duela gaineratu du: «Nire kasuan Hezkuntza Departamendurako azpikontratatuta nago, eta ziur naiz baldintza hauetan Hezkuntza sailburuak berak ere ez lukeela lan egingo».

Pertsonak daude, finean, egoera pertsonalen atzean, eta hauek sostengatuz, gizarte bat. «Pertsonak modu horretan tratatzen dituen gizarte batek, ordea, pena merezi al du? Hau al da gure seme-alabentzat nahi dugun etorkizuna?», luzatu ditu galderak Emiliok. Dio egunero euren buruei egiten dizkieten galderak direla, eta gaineratu du ezin duela ulertu zergatik agintean dauden politikariek opa dieten egoera hau herritarrei, «oso gogorra den egoera hau». «Eskubide minimo batzuek ziurtatuta egon beharko lukete, baina guk ia ez dugu eskubiderik... Egia esan, emozionalki eta pertsonalki, ez gaude go-

Emilio, Araceli eta Silvia, prekaritatearen hiru aurpegi eta soldata duinen aldeko eta prekaritatearen aurkako ekimeneko kideak.
GAUR8

Aldarrikatzen duten 1.200 euroko lansaria gaur egun askok irabazten duen miseriaren gainetik dagoela diote, «baina besteen lanari esker aberasten diren horien diru sarreraren azpitik»

Soldata duinen alde eta prekaritatearen aurka sinadura bilketa abiatu dute eta, Prekaritatearen Aurkako Fokua baliatuz, Iberdrola, Adegí eta Kutxabanken aurkako ekintzak egin dituzte

goeta askotarako, nahikoa lan dugu egunak eta asteak igarotzearekin. Hala ere, zerbait egiteak merezi duela uste dugu», adierazi du. Hori hala, ahal den neurrian bizi duten errealitatea salatzen jarraituko dutela dio, «publiko egin eta prekaritatea leku guztietan pairatzen dela adierazi: komertzio eta denda-tan, saltoki handietan, bankan, administrazioarako lanean dauden azpikontratetan, eraikuntzan, Alemaniara joan behar duten ingeniari gazteen kasuan edota taberna bateko barraren atzealdean». Jakin badaki asko direla, baina, era berean, badaki ere ezer egiten ez badute prekaritatean bizi diren pertsonen kopuruak gora egingo duela, «eta hori, oso gogorra izateaz gain, tristea ere bada».

ANTOLATU ETA EGOERAREN BERRI EMAN

Gauzak horrela, prekaritatean bizi diren pertsona guztiei antolatzeke deia luzatu die Emiliok: «Bizitzen ari garen 'marroia' azaleratzeko balio badu, ez da gutxi». Egoeraren arduradunak identifikatzea ere beharrezko ikusten du, prekaritatea berezko egoera aldaezina ez dela sinetsita dagoelako; «oinarri eta jatorri zehatz batzuk izateaz gain, arduradunak ere baditu». «Ez dakigu konponbidea nondik etorriko den, baina parte hartu eta eragin egin nahi dugu», azpimarratu du.

Aracelik ere soldata duinen aldeko eta prekaritatearen aurkako mezua plaza publikoan ateratzea-

ren alde egiten du, «eztabaida pizteko, medio edo alderdi eta erakunde nagusiak horren inguruan hitz egitera behartzeko». «Gure ustez, asko dago jokoan; gure seme-alabei zer-nolako gizartea eta zer-nolako aukerak utziko dizkiegun dago jokoan», azpimarratu du. Horretarako, batasuna eta elkarlana oinarriko elementutzat jotzen ditu Aracelik, hots, eragile, pertsona eta sektore ezberdinekin lankidetzan aritzea: «Azken batean, egoera honekin amaitu eta duintasunean zein justizia sozialean oinarritutako aldaketa bat gura dutenen arteko elkarlana aldarrikatzen dugu». Elkarlana, ordea, bakoitzak ahal duen neurrian garatzearen aldekoa da, baina egoera iraul daitekeela uste du: «Posible da, gehiengo gara. Aurrerapauso bat ematea besterik ez zaigu falta».

Abiatu dituzten ekimenen artean, aipatzekoa da martxan jarri duten sinadura bilketa. Internet bidez sina daiteke, www.1200eurotikgora.eus helbidean sartuta. Bertan jarri dute ere manifestua irakurgai, eta edozeinek adieraz dezake bere atxikimendua, modu publiko zein anonimoan. Oraingoan, 265 sinadura bildu dituzte, baina ez dute nahi helburu zehatz bat markatzerik: «Ez dugu uste biltzen dugun sinadura kopuruak etorkizuna markatuko duenik», dio Silviak. Dena den, sinatzeari garrantzia berezia eman nahi diote, «gero eta jende gehiagok sinatuz gero, hobe». Horregatik, lerrook irakurtzen ari den oro nahi dute gonbidatu euren manifestua sinatzera, «ziur garelako aldarriarekin bat egiteaz harago kontatzen ari garen

errealitatea lehen pertsonen bizitzeara egokitu zaiela askori».

Baina sarean ez ezik, kalean ere egin dituzte hainbat ekimen. Proiekzioak erabili dituzte gaur arte salaketa ekimenak egiteko, eta Iberdrola, Adegí eta Kutxabank izan dituzte jo puntuan. Iragan urriaren 17an egin zuten Iberdrola Dorrearen aurkako ekintza. Salatu zuten Iberdrolak, «etekinak handitzen dituen enpresa erraldoia izan arren», prekaritatetik «oso gertu» dauden lan baldintzak ezartzen dizkiela langileei: «Azpikontratazioa oso ohikoa da eta bertan aldiroko kontratuak dira nagusi». Era berean, Euskal Herriko hainbat etxeetako errealitatea den pobrezia energetikoa izan zuten hizpide: «2014ko datuen arabera, 200.000 familia inguruk pairatzen dute». Soldatei dagokionez, azaldu zuten informatikari edo ingeniariak 1.000 euro kobratzera iristen ez diren artean Sanchez Galanek –konpainiako presidentea– 2014an bederatzi milioi euro baino gehiago irabazi zituela. «Gainera, %22an igo du bere soldata», salatu zuten.

Adegí izan zen soldata duinen aldeko eta prekaritatearen aurkako ekimenak eginiko proiektioaren hurrengo biktima. Kasu horretan, salatu zuten Gipuzkoako patronalak, «lobby baten antzera», gutxiengo baten interes pribatuen alde egiten duela, «gehiengo zabal baten eskubideen aurka». Horregatik, Adegiri soldata eta lan baldintza duinak exijitu eta gehiengo zabal baten interesak defendatzea eskatzeko baliatu zuten ekimena.

Kutxabank izan da azken biktima. Iragan urriaren 26an egin zuten proiektzioa bankak Araban duen egoitza nagusian, Vital Kutxaren eraikinean. «Etxe kalera-tzeak, inbertsiogile pribatuen parte hartzea, 'putre fondoan' inklusioa, herritarrek kredituak eskuratzeko dituzten zailtasunak edo ekintza sozialaren gale- ra dira Kutxabanken jardunaren erakusle», azpimarratu zuten. Hori guztia, gainera, «soldata erraldoiak» dituzten arduradunek erabakitzen dutela salatu zuten. Prekaritatearen Aurkako Fokua biktima berrien bila dabil.





Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

LOMCE ari du, oraindik

Zer gertatu ote da LOMCE legearekin, udaberrian ikastetxeek egindako plantoen ondoren, eta udan Espainiako ministro berriarekin Estatuko komunitate autonomoetako -tartean Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa- Hezkuntza kontseilariak egindako bilera entzutetsu haren ondotik? Bilera hartan Espainiako Estatuko hamazazpi erkidegoetatik hamabik adierazi zioten Hezkuntza ministroari legearen kontra zeudela eta aldaketak eskatu zizkioten. Gainera, Nafarroa eta beste hamar erkidegok iragarri zioten ez dutela legea aplikatuko.

Behar bada joan den ikasturtean LOMCEn kontra egin zen ekimen adierazgarri eta esanguratsuena Lehen Hezkuntzako 3. mailan egin nahi zituzten ebaluazioei egin zitzaizkien plantoa izan zen. Hezkuntza Sailak hogeik ikastetxe aukeratu zituen ebaluazio hori egiteko. Eskola Publikoari dagokionez, aukeratu zituen hamabost ikastetxetatik bakarrean egin ahal izan zuen ebaluazioa. Han, 11 ikasle aurkeztu ziren bi ikasgela elkartuta. Hautatu zituzten bi ikastolek plantoa egin zuten, eta Kristau Eskola taldetik aukeratu zituzten hiru ikastetxetan, berriz, normaltasunez egin zuten azterketa.

Hala ere, Espainiako Gobernuak erabaki irmoa du LOMCekin aurrera egiteko. Ministro berriak egin duen aldaketa bakarra, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako dekretuen onarpena atzeratzea izan da, eta, ondorioz, pentsatuak zituzten errebalidak atzeratu egin dira.

LOMCE legeak, beraz, bere horretan darrai aurrera. Ikasturte honetan, Lehen Hezkuntza osoan ezarriko da. Bestalde, 2015/2016 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara pasako diren ikasleek LOMCE titulazioa jasoko dute. Horrenbestez, LOMCE ari du, eta aldaketa nabarmenak eragingo ditu. Horien artean, edukiei dagokienez, LOMCEk ezarritakoak landu beharko dira Lehen Hezkuntza osoan. Ikasmaila horietan, gainera, Erlijioa eta Balore Sozial eta Zibikoak ikasgaia ebaluatu eta kalifikatu beharko da eta ikasleen txosten akademikoan kontuan hartuko da kali-

fikazio hori. Ingurunearen ezaguera ikasgaiari ere eragingo dio legeak aurtan. Arloa desagertu eta bi ikasgaitan landu, ebaluatu eta kalifikatuko da: Natur Zientziak eta Gizarte Zientziak.

Ebaluazio atalari dagokionean, Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek ebaluazio berezi bat egingo zaie, ebaluazio diagnosi tankerakoa. Ebaluazio horren emaitzak ez du eraginik izango ikaslearen txostenean, ikastetxeen arteko rankinga egiteko balioko du, ordea. Hori izango da errebalidetan oinarritutako ebaluazio sistema baten atarikoak. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek, berriz, Lehen Hezkuntza osoa kalifikatuko dien ebaluazio frogara egin beharko dute. Froga hori Madrilatik egina iritsiko zaigu eta LOMCE edukiak ebaluatuko ditu. Kalifikazio horren emaitzaren arabera ikasle sailkapenen aukera irekita geratuko da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako, mailakako taldeetan antolatuz ikasleak. Testuliburuaren arloan, hainbat argitaletzek, jada, LOMCEk ezarritako edukietara egokitu dituzte argitalpenak.

Ingurumari horretan, ez dira gutxi itxaropen guztia Espainiako Estatuan abenduaren 20an egingo diren hauteskunde orokorretan jarri dutenak. Ziur dira Espainiako Alderdi Popu-

larraren nagusitasunaren balizko galerak LOMCE legea indarrrik gabe utziko lukeela. Hauteskunde kanpaina egingo diren promesen artean egongo da boterea eskuratuz gero LOMCE legea indarrrik gabe uztearena. Gozoki iradokitzailea, dudarik gabe.

Hauteskunde emaitzak direnak izanik ere, euskaldun eleaniztunak eta munduari begira dauden pertsona osoak heziko dituen Euskal Hezkuntza Sistema irudikatzen, diseinatzen eta egituratzen jarraitu behar dugu. Konpromiso hori dugu euskal herritarrekin, eta, zergatik ez, baita munduko herritarrekin be-
raiekin ere.

Hauteskunde kalkuluetatik at beharko luke gure haur eta gazteen, eta haienarekin eskura doan, Euskal Herriaren eta hezkuntzaren etorkizunak. Emaitzek, batzuk ala besteak izan, beren eragina izango dute gure lanean. Baina ez ahaztu: hezkuntza arloan ere ez digute ezer oparituko. Bidea egiten jarraitu behar dugu, guk geure hezkuntza sistema propioa eraikitzeko bidean. •



Irudian LOMCEn kontrako protesta bat.

Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Erreprodukzio-Produkzio

Mendeetan zehar emakumeen funtsezko eginkizuna amatasuna zela esan ziguten, genuen betebeharrak nagusia ugalke-ta izanik gure izatearen arrazoi bakarra hori zela entzun behar izan genuen. Erreprodukzio gaitasunik gabe emakumearen papera ez zen nahitaezkoa. 1632an argitaratutako Lope de Vegaren “La Dorotea” lanean bitartekari lanak egiten zituen Gerardaren pertsonaiak galdera hori egiten zion bere buruari; zahartzaroarekin, hilerokoa galtzen dugunean eta berarekin umeak izateko daukagun gaitasuna, ze zentzu dauka gure izateak?

Eredu kristauaren arabera emakumeon papera, senarraren esanetara egoteaz gain, seme-alabak ongi heztea zen, fededun zintzoak sortzea. Paper hori ongi betez gero, emakumeok eta gizonezkoek bakoitzak euren rol mugen barruan mantenduz gero, gizarteak aurrera egingen zuen. Patriarkatuaren diskurtsoaren arabera jaioak izan ginenean jasotako zigilua bailitzan, maitatzeko eta zaintzeko ahalmenaren pribilegioa genuen. Eta, propaganda kanpaina onenetan bezala, garrantzitsuak sentiarazi gintuzten. Bake soziala gure eskuetan genuen. Arduraren harrotasunari esker gure zama pozik jasaten genuen.

GIZONEZKOEK BEZALAKOAK IZAN NAHI DUZUE?

Gutxika emakumearen askapenerako borrokari esker zerbait gehiago ginela ohartu ginen. Ama izatea aukera bat zen, norberak aukeratu zezakeen bidea, eta gure identitateak nabardurak eskuratu zituen. Orduan kapitalismoak beste nahitaezko eginkizun bat oparitu zigun; produkzioaren zentzua eman zitzaigun emakumeoi. «Gizonezkoak bezalakoak izan nahi duzue? Produzitu!». Eta horrela merkataritza mundura sartuz gero gure askapena lortuko genuela esan zitzaigun.

Berriro ere propaganda kanpaina onenetan bezala, erabakitze gaitasuna genuela sentiarazi ziguten.

Gaur, produkzio-erreprodukzio dikotomiak bahituta gaude. Emakumeok egiten dugun erreprodukzio lanari eta soldatarik gabe egiten dugun zaintza lanari esker sistemak aurrera egiten du.

Orain, emakumeok bi izateko arrazoi ditugun moduan, bi lan ere baditugu: etxetik kanpo egiten duguna eta etxe barruan egiten duguna. Bata gure askapenerako ona omen da, bestea edozein emakumek sentitzen duen familiarekiko maitasun naturalagatik egiten dugu.

Etxetik kanpo lan egiten ez duen emakumea, ume eta etxearen zaintzari lehentasuna emanez, sistema patriarkalaren biktima da. Amatasunari uko egiten diona, berriz, bihozgabeko emakumea da, desnaturalizatu hutsa. Ongi izorratu gaituzte! Ongi saldu digute askatasunaren eta maitasunaren kontua!

PATRIARKATUA ETA KAPITALISMOA

Silvia Federici idazle eta aktibista feministarekin bat nator, berdintasunaren aldeko borrokak ezin gaitu itsutu. Helburua baldin bada gizonezkoak lan merkatuan jasaten duten esplotazio berdina jasotzea, nik berdintasun horri uko egiten diot. Patriarkatuaren diskurtsoa mendeetan zehar eraginkorra izan den bezala, orain kapitalismoaren azpijokoak iruzur egin digu; burujabetzaren gakoa lan merkatuan dagoela sinistarazi digu. Patriarkatua eta kapitalismoa eskutik datoz, diskurtsoa hobetu dute, eraginkorragoa da, agian ez horren zuzena, eta, guk, jakin gabe, erosi egin dugu. Gure askapena lortu nahi badugu, erreproduzitu-produzitu dikotomia gainditu nahi badugu, gure borroka langileen borroka berdina dela ulertu behar dugu. •

Gaur, produkzio-erreprodukzio dikotomiak bahituta gaude. Emakumeok egiten dugun erreprodukzio lanari eta soldatarik gabe egiten dugun zaintza lanari esker sistemak aurrera egiten du

«Ikasle gorren zailtasunei buruz dagoen ezjakintasuna gainditu behar da»

Argi dago urrats asko egiteke dau dela desgaitasun-
nen bat duten
pertsonek auke-
ra berdintasuna
bermatzeko. Sarritan begi bistan
dauden mugikortasun arazoez
ohartzen gara, baina entzumen
arazoak dituzten lagunek zer-
nolako zailtasunak aurkitzen di-
tuzte? Gizarte Hezkuntzan
EHUn graduatu berri den Elene
Sorazuk pertsona gorren uni-
bertsitateko ikasketa prozesua
aztertu du gradu amaierako lan
batean. Bere esperientzia pro-
piotik abiatuta, geletan arazoak
aurkitzen dituztenekin hitz egin
du, eta, dioenez, ondorioztatu
du berebiziko garrantzia duela
irakasleak sentsibilizatzea eta
ikasleak motibatzea. Hiru cam-
pusetako hamahiru pertsona
gor, ikasle gorrekin lan egiten
duten hemezortzi irakasle eta
Desgaitasunak Dituzten Pertso-
nentzako Zerbitzuko teknikaria
elkarrizketatu ditu. Ikasleen ara-
bera, irakasleak askotan ahazten
dira euren errealitateaz, «izan
ere, eztabaidetan guztiek batera
hitz egiten dutenean, zarata
handiegia dagoenean edo azal-
penak ondo heltzen ez direnean,
pertsona gorrari bizkarra ema-
ten ari dira».

Planteatzen duenez, ezagutza
eza ere arazo nabarmena da;
ikasle gorren kolektiboa oso an-
tza da eta kasu bakoitza ezberdi-
na da, pertsona bakoitzak beha-
rrizan ezberdinak dituelarik.
Horregatik, ikasgeletako irakas-
te eta ikasketa jarduerak hobe-
tzeko sentsibilizazio kanpaina
bat proposatzen du, baita ikasle
gorren eta irakasleen arteko lan
komuna eta lan horren jarraipe-
na. Aintzat hartu beharreko fun-
tsezko sei gako aipatzen ditu:
«kontzientzia, partaidetza eta
lankidetzat, konpromisoa eta
irisgarritasuna, inklusioa, enpa-
tia eta elkarren arteko babesa».

Zerk bultzatu zintuen lan hau egitera?

Ikasle gor gisa izan nuen espe-
rientziak bultzatu ninduen lana
burutzera. Unibertsitatean, ka-

rreran zehar (Gizarte hezkuntza)
lehenengo eskutik bizi izan dut
egungo egoera, eta entzumen
desgaitasuna duten beste per-
tsona batzuk ere bat datoz gure
ikaste prozesuan arreta egoki-
tua eta metodologia egokiaren
beharra aipatzerakoan. Desgai-
tasunak Dituzten Pertsonentza-
ko Zerbitzuak irakasleei baliabi-
deak eta tresnak eskaintzen
badizkie ere, kontu batzuk ho-
betu litezkeela uste dut. Horre-
gatik, garrantzitsutzat jotzen
dut unibertsitatean ikasten du-
ten pertsona gorrei ematen
zaien erantzuna egokitzearen
aldeko sentsibilizazio lana egi-
tea, inklusioa eta aukera berdin-
tasuna erraztuz.

Diozunez, irakasle eta ikasle gorren arteko harremanak errazteko oztopo nagusietako bat ziurtasun falta da. Zertan islatzen da?

Irakasleen zein ikasleen aldetik
nagusi den ziurgabetasunaz ari
naiz, desgaitasunaren inguruan
irakasleek duten ezjakintasuna
nabaria baita. Irakasleak pertso-
na gor bat gelan izateak zehatz-
mehatz zer suposatzen duen ez
dakienez, ez daki egoeraren au-
rrean egoki jokatzeko. Pertsona
gor asko egoera horrekin frus-
tratu egiten dira. Irakasleek sa-
rri ez dakite egoerari irtenbidea
nola eman edota, ikasleekin ara-
zoa zuzentzeko hitz egin ondo-
ren, egoera errepikatu egiten da.
Orduan, ziurgabetasuna sortzen
da, ezjakintasuna. Entzumen
desgaitasuna duten guztiak ez
dira berdinak, talde anitza da,
eta, beraz, irakasleak pertsona
jakinetara egokitu behar dira di-
tuzten beharrezko arabera.

Zer-nolako egoerak eman dai- tezke gelatan ziurgabetasun horren ondorioz?

Ziurgabetasun egoera horren
ondorioz, irakasleak jarraitu be-
harreko jarraibideez ahazten di-
ra eta ikasle gorrek ezin dituzte
eskolak egoki jarraitu. Jarraibide
horiek Desgaitasunak Dituzten
Pertsonentzako Zerbitzuak es-
kaintzen dituen txosten psiko-
pedagogikoetan agertzen dira,

pertsona gorraren egoeraren in-
guruko beharrezko informazio-
arekin. Eskolak ematen dituzten
irakasle guztiek ezagutzen di-
tuzten jarraibideak, baina ez di-
ra beti betetzen.

Irakasleen eta entzumen des- gaitasuna duten ikasleen arte- ko lan komuna planteatzen du- zu, horren barruan eskolen jarraipena ere proposatuz. Zu- re ustez zelan antolatu beharko litzateke komunikazio hori?

Nire ustez, bientzako onuraga-
rriena batzarrak egitea da, hau
da, ikasle gorrek zuzenean azal-
tzea irakasleei dituzten beharri-
zanak, beraien egoera, duten
desgaitasuna, ikaste prozesua
errazteko behar dituzten jarrai-
bideak... Bi aldeek nola jokatu
adostu behar dute, irakasleak
ikaslearekin konpromisoa har-
dezan materiala aldeaz aurretik
errazteko orduan, ikus-entzu-
nezko material ulergarria ema-
teko... Betidanik esan denez, per-
tsona bakoitza mundu bat da,
eta, horregatik, bere osotasune-
an ezagutu behar da, ahalik eta
erantzun egokiarekin erraztearren.

Mahai gainean ipintzen duzun beste gai bat entzumen desgai- tasunak dituzten pertsonen kolektiboaren aniztasuna da. Diozunez, kontuan hartu behar da kasu batzuetan desgaitasu- na arina izan daitekeela, baina badaudela kasu larriagoak ere, ikusmena eta entzumena pix- kanaka galtzea eragiten duen Usher-Hallgren sindromea du- ten ikasleen egoera adibidez. Badago kasu ezberdin horien inguruko daturik?

Ez dut datu estatistikorik eta nik
dakidala ez da sindrome horren
gaineko azterketarik, ezta paira-
tzen duten ikasle kopuruari da-
gokionez ere. Badakit entzumen
desgaitasuna duten 24 ikasle
daudela guztira EHUn 2015-16
ikasturte honetan.

Nola deskribatuko zenuke egun unibertsitatean ikasten duen ikasle gor baten egoera?

Kontuan hartu behar da kolek-
tiboaren aniztasuna. Hau da,

ELENE SORAZU

EHU-KO GRADUKO IKASLEA

Gradu amaierako lan batean, EHuko ikasle
gorrek dituzten beharrei erantzun egokia
emateko sentsibilizazio premia
nabarmendu du Elene Sorazuk.



Argazkiak: Jon URBE | ARGAZKI PRESS

ikasle bakoitzak berezko beharrianak ditu. Horregatik, egoera oso ezberdina izan daiteke inplante koklear bat daukan pertsona gor baten kasua, irakaslearen arreta behar duelako eta FM frekuentzia erabil dezakeelako, eta zeinu hizkuntzako interpretea behar duen beste pertsona gor batena. Ikasle gorrrarekin eragina duten irakaslearekin lotutako egoerak askotarikoak dira: irakaslearen jokabidea bera jarraibideak betetzen ez baditu, azkar hitz egitea, bizkarra ematea, metodologia desegokia erabiltzea, txandak errespetatzen ez dituzten eztabaidak onartzea, beharrezko izan daitezkeen egokitzapenak kontuan ez hartzea, transkripzioari eta azpiztitulurik gabeko ikus-entzunezko materialak erabiltzea, azken uneko

ezustekoak izatea, ahozko irakurketak...

Behin baino gehiagotan, ikasle gorrek eskolak jarraitzeko arazoei aurre egin behar izaten diete, txandak errespetatzen ez direlako eta interpreteak ezin duelako bere lana zuzen egin, ikaskide guztiek aldi berean hitz egiten dutelako eta irakaslea ez delako egoeraz ohartzen... Ondorioz, ikasle gorrek informazioa galtzen dute, ezin dute eztabaidetan parte hartu ezta beren iritzia eman ere... Horrek guztiak frustrazioa eragiten du. Ohikoa den beste zailtasun bat ikus-entzunezko materialen "erabilgarritasuna" da, bideo gehienak azpiztitulurik gabeak baitira.

Planteatzen duzu irakasleak askotan ahazten duela ikasle

guztiek ez dituztela erraztasun berberak eskolak jarraitzeko. Zer egin dezakete? Badago guztieneko formaziorik ahoskatzeko orduan edota bestelako jarraibideetan?

Irakasleek inplikazio handiagoa izan behar dute, ikasle gorrek hurbilago senti daitezen, eskolatan integratuago. Hobetze alderara, irakasleek ikasle gorren jarraipena egin behar dute, eta alderantziz. Era horretara, biek hobeto lan egingo lukete, alde bien arteko laguntza emango litzateke, bientzako mesedegarria izango litzatekeena.

Irakasleen lana hobetu egingo da irakaslearen desgaitasunari buruzko ezagupen handiagoa izan eta beharrianen erantzuteko zerbitzuarekin kontaktu handiagoa mantentzen duen heinean. Praktika onen gaineko for-

mazioaren bidez irakasleak izango dituen beharrei erantzuteko ezagutza lor dezake. Irakasleek trebatzeko aukerak baliatu behar dituzte. Zerbitzuak, dagoeneko, kasu bakoitzari dagokion txosten psikopedagogikoa helarazten dio irakasleari, desgaitasuna duen pertsonaren gaineko informazioarekin, dituen beharrrak eta ikaste prozesua errazteko jarraibideak adibidez. Gainera, kontuan hartu behar da kolektiboaren aniztasuna eta pertsona bakoitzak berezko beharrianak dituela. Irakasleak, beraz, desgaitasuna eta beharrianak ulertu eta ezagutu behar ditu jarraian pertsona bakoitzaren egoerara egokitzeko.

Hasierako urrats modura, badago irakasleek jarrai dezaketenen eredurik edo arau sin-

«Unibertsitateko irakasleek inplikazio handiagoa izan behar dute, ikasle gorrek hurbiltasuna senti dezaten, ikasgeletan integratuago senti daitezen»

«Ikasle gorrak ikasle aktiboak izan behar dira, bai euren egoera azaltzeko bai beharrezko egokitzapenak eskatzeko»



plerik eskolak errazteari begira?
Unibertsitatean ez dago uneotan eskola berezirik, baina, esan bezala, Desgaitasunak Ditutzen Pertsonentzako Zerbitzuak eskaintzen dituen egokitzapenak izan badaude, behin desgaitasuna duen ikasleak matrikula egin eta dituen beharrianen araberrako eskaera egiten duenean abian jartzen direnak.

Unibertsitatetik kanpo, ezagutzen duzu ere zein den eskoletako egoera. Nola moldatzen dira maisu-maistrak ikasle gorrekin?
Gipuzkoan, adibidez, Aransgi elkarte dago, Gipuzkoako pertsona gorren familiak biltzen dituen, eta, bertan, pertsona gorrei erantzun egokia emateko beharrezko zerbitzuak lantzen egiten dute lan. Hezkuntza arloan, hezkuntza bereziko profesionalak dituzte, logopedak. Azkenaldian izandako lege aldaketek ez dakit zer puntutaraino eragina izan duten arlo honetan, hobekuntzarik izan den edota metodologian aldaketarik

egon den. Baina, Gipuzkoan adibidez, badakit gorrak diren ikasleentzako berezko ikasgelak badaudela, laguntza pertsonalizatua eskainiz egokitzapen kurrikularrekin.

Aipatzen duzu sentsibilizazio kanpaina batek lagun lezakeela harremanetan dauden hezi batzuk botatzen. Zure ustez, mezua nondik joan beharko litzateke?
Batez ere irakasleei eta ikasleei zuzendutako kanpaina izan beharko litzateke, ikasle gorrek bizi duten egoeraren gaineko kontzientzia har dezaten. Azken batean, gorren ikaste prozesua erraz lezakeen aukera berdintasuna lortzea litzateke helburua, eta ikasle gorren eta irakasleen arteko harremanak zein ikaslearen artekoa hobetzea.

Zein da EHUko Desgaitasuna Duten Pertsonentzako Arreta Zerbitzuaren papera?
Desgaitasuna Duten Pertsonentzako Zerbitzuak ikasle horientzat bitartekoak eta baliabideak eskaintzearen ardura du. Aukera

berdintasuna bermatzea du helburu. Nire kasuan, laguntza eta konfiantza eman dit hasieratik, baina gertatzen dena da ez dela beti nahikoa izaten. Ikaste prozesuan pertsona gorrek dituzten beharren erantzunean ikasleek duten papera erabakigarria da, izan ere, lehen aipatu bezala, ikasleek sarritan ez dituzte jarraibide guztiak betetzen; ahaztu egiten zaizkie ohitura faltagatik, ez dute gorra izatea zer den ezagutzen...

Entzumen desgaitasuna duten pertsonen dagokionez, nola inplika daitezke beraien egoera ezagutzera emateko?
Pertsona gorrak ere inplikatu egin behar dira beraien egoera gizarteari eta irakasleei, bereziki, ezagutzera emateko. Ikasle aktiboak izan behar dira euren egoera azaltzeko eta beharrezko egokitzapenak eskatzeko. Irakaslearen ekarpena funtsezkoa da irakaslea egoera hobetzeko gai ez bada. Era berean, parte hartu behar du sentsibilizazio ekitaldietan, hitzaldietan, informazioaren dibulgazioan, bideoe-

tan... Bizi duen egoera azaldu behar du. Gure errealitatearen berri ematen badugu, laguntza gehiago jasoko dugu. Ikasle eta irakasleen arteko lankidetzak izan behar da, irakasleari zelan jokatu azaltzeko, irakasleak lagun gaitzan eskolak hobeto jarraitzeko baliabideak eskainiz... Oinarrizko printzipioak errespetua eta elkarren arteko laguntza dira, gainontzeko ikasleekin aukera berdintasunean izatea lortzea xede.

Lan arlo honek jarraipenik izango al du zure ikerketa jardueran?
Gradu amaierako lan hau hainbat komunikabidetan zabaldu da. Beraz, izan duen oihartzuna kontuan hartuta eta Desgaitasuna Duten Pertsonentzako Arreta Zerbitzuarekin eta Euskal Gorrak elkartarekin lan egiteko aukera izanik, ikasle gorrak matrikulatuta dauden zenbait fakultatetan sentsibilizazio saioak izango dira. Master bukaerako lanean programa hau gauzatzeke eta horren ebaluazioa egiteko asmoa daukat.





Bardean arratsalde berdinean hartuak dira alboko hiru irudiak; ezkontzera doan bikote bat album ofiziala egiten, hegazkin militar bat maniobrak egiten hasteko prest eta artzain bat lasai ederrean artaldea zaintzen. Kontraesan horiek guztiak kabitzen dira egun Bardeako lurralde zabalean.

Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

NATOKO 1.300 SOLDADU GERRA MARRAZTEN BARDEAN

Bardea izan daiteke ezkontzako argazkiak ateratzeko parajea. Amaitzen ez den edertasun patxadatsua magalean hartzen duen natur parkeak balioko luke beti perfektuegiak diren argazki horiek ateratzeko.

Bardea izan daiteke artzainen paradisu isila. Betikoa den lanbidea betirako modukoa izan daitekeela sinistarazten du Bardeak, ameskeriak eta ilusioak aise kabitzen baitira lurralde zabal horretan.

Baina Bardea Espainiako Armadaren tiro poligonoa ere bada, Estatuan benetako armak erabiltzen dituzten toki bakarra. Espainiako Armadak Bardea bonbardatzen du gerrarako entrenatzeko. Eta hala gertatzen da 1951. urtetik, inguruko udaletara diru zakuak bidalita erosten baitute isiltasuna eta otzantasuna. Egunotan NATOren azken hamkadako ariketa militarrik handienak egiten ari dira bertan. 1.300 soldadu inguru gerrarako prestatzen.

Hobe lukete, badaezpada, bakerako prestatzea eta entrenatzea. Halako batean gainera etorriko zaie bakea eta ez dute ideia zipitzik izango zer-nolako maniobrak egin.

amagoia.mujika@gaur8.info

ERRONKARIKO GAZTA

Eroski SeleQtia gourmet markak produktuaren salmenta bultzatu eta ikusgarriago egingen du bere kalitatea

 **ELIKADURA** / Maider Iantzi Goienetxe

Nafarroako Gobernuak, Eroskik eta Erronkari Jatorri Izen Babestuak akordio bat sinatu dute gazta hau, eta honen bidez tokiko produktuak, sustatzeko. Bere ezaugarri gastronomiko eta kulturei balioa eman nahi diete, baita tokiko ekonomiari ere. Nafarroako Pirinioetan hazitako latxa ardien esne gordinarekin egindako jakia da, erabat naturala.

Bertako jaki estima-tu bat bulkatzera dator Eroskik, Nafarroako Gobernuak eta Erronkari Jatorri Izen Babestuak izenpetutako akordioa. Eroski SeleQtia gourmet markak zabalpena eta prestigioa emanen

dio nafar Pirinioetako larreetan hazitako ardi latxen esnez eging-dako gaztari. Intia-Reino Gourmet, alde ba-tetik, Nafarroako nekazaritzako elikagaien ziurtagiriaz eta kon-trolaz arduratzen da, eta, bertze-tik, beren sustapenaz eta zabal-penaz. Aurkeztutako hitzarmena

bigarren lan ildoan kokatzen da eta kontsumitzaile eta sukaldariek izugarri baloratzen duten bertako produktu bat bultzatzen du.

Intia-Reyno Gourmetek bezala, Eroskik ere Nafarroa bertako ja-kiak sustatu eta garatzen lagun-du nahi du. 2014an Erronkariko 20.000 kilo gazta baino gehiago saldu zituen eta kopuru hori bi-koiztea du helburu, baita Jatorri Izen Babestu honen kalitatea ikusgarriago egitea ere. «Kontsu-mitzaileek Nafarroako produktu honi merezi duen balioa eman diezaioten nahi dugu», adierazi zuen Anabel Zariquiegui Eroski-ren Iruñeko hipermerkatuko zu-zendariak gazta berriaren aur-kezpen ekitaldian. Gobernuko

Landa Garapeneko sailburu Isa-bel Elizalde ere itunak nekazari-tza elikagaien garapenari egiten dion ekarpena azpimarratu zuen. Jendartea sentsibilizatzeko beharra ere aipatu zuen, produk-tu hau kontsumituta bertako lanpostuei eusten zaielako, eta, ondorioz, gure herri eta paisaiei.

JATORRI IZENA JASOTZEN LEHENA

Intia Kontseilu Erregulatzailerak sustatu, babestu eta kontrola-tzen du Erronkariko gaztaren ekoizpena, produktuaren kalita-tea entitate independente baten kontrol zorrotzekin zainduta. Gazta hau lehen jakia izan zen Estatu espainiarrean jatorri ize-na jasotzen, 1981ean.

Orain, Eroski SeleQtia gourmet markarekin salduko da taldeko merkataritza zentro eta saltoki guztietan. Marka horren barnean kalitate handiko produktuak sar-tzen dira. «Osagai, aldaera, arra-za, jatorri eta errezeta onenekin eginda daude, metodo tradizio-nalek ematen duten zapore bere-ziarekin eta dastatzaile adituen bermearekin».

Mikel Arnarez Larra Gazten zu-zendaria da, Erronkari Jatorri Izen Babestuko SeleQtia gaztaren hornitzailea. GAUR8ri esplikatu dionez, hainbat arrazoigatik da garrantzitsua hitzarmena. «Sal-mentak igotzea ekarriko du, eta, batez ere, hurbileko produktuei eta ekoizleei bultzada handiagoa emanen die. Eroskiren gama al-tuko marka erreferentearen ai-torpena da».

Eskuz lan egiten duen enpresa da Erronkariko gaztarena. 31 urte daramatzate jaki hau ekoizten eta orain 70.000-80.000 kilo gazta egiten ari dira urtean. Aur-ten %10 inguru handitu dute produkzioa, eta, salmentek la-guntzen badute, igotzen saiatuko dira datorren urtean ere. «Hori

Beheko argazkian, Eroski SeleQtia gourmet markarekin taldeko saltoki guztietan salduko diren Erronkariko gaztak. EROSKI



{ Erronkariko gazta }

Latxa eta nafar kastako jaki zaporetsua

Latxa eta nafar arrazako ardien esne gordinarekin egindako gazta da. Lau hilabete behar ditu ontzeko eta **Erronkariko gaztandegietan** ekoizten da eskusiboki. **Azal natural, gogor, zakar, urintsu eta lasto kolorekoa** du; mamia ere gogorra, eta zulotxoduna, begirik gabea. Usaina eta zaporea bereziak ditu, **zertxobait mina da**, eta zuri-horixa da moztutakoan.



Akordioaren hiru sinatzaileak eskua emanda, Nafarroako Gobernuaren, Eroskiren eta Erronkariko gaztaren ordezkari.
EROSKI

bai, horretarako esnea lortu behar dugu eta hori konplikatuagoa da beti».

Gaur egun Eroski bezalako merkataritza zentro handiak dira gehien saltzen dutenak eta horregatik garrantzitsua iruditzen zaio Arnarezi bertako kalitatezko produktuen alde apustu egiten jarraitzea. «Landa eremuko biz-

tanleriari eustea dakar horrek, Erronkariko gazta bailaran eginga baita eskusiboki. Abereek latxa arrazakoak izan behar dutenez, abeltzainak ere landa eremuetan kokatuta daude. Jendeak kontzientzia hartu behar du halako produktuak kontsumituz mende egiten diola nekazaritzari lotutako familia kopurua manten-

tzeari. Lanpostu falta handia dugu landa eremuetan», azaldu du ekoizleak.

Ohartarazi duenez, Erronkariko gaztak dezenteko desabantaila du jatorri izena duten bertze gazta batzuekiko. Erabiltzen duten esnea Idiazabal gazta egiteko erabiltzen den bera da, baina ez daude esnea ekoizten den inguru batean. Nafarroa iparraldean ekoizten da batez ere esnea, baina Erronkarin ez dago ardi latxa esnerik, arraza ez delako ongi egokitzen bailarara. Orduan, gazta egiteko pausoa ematen duten artzainek Idiazabal gazta ekoitzi ohi dute. «Hemengo beste jatorri izenaren, Idiazabalen, arabera lortzen dugu esnea. Eskaera handiagoa badu eta esne gehiago behar badu, edo esnea ekoizten duten artzainek beraiek gehiago ekoizten badute gauzak hobeki

doazelako, guk, Erronkarikoek, gehiago ordaindu arren ez dugu esne nahikorik lortzen».

Gaztaz harago, orokorrean, Nafarroako tokiko ekoizpena gero eta handiagoa da. «Bertako nekazaritza elikagaien industria hagit indartsua da, gero eta handiagoa, bereziki kontserbak eta Erriberako industria. Mendialdean gehiago gaude gaztaren eta urdaitegi txikien mende. Erronkarin, gaztarena da bertako nekazaritzaren industria. Aurten gaztandegi batek ekoizteari utzi dio, esne produkzioaren jaitsiera aurreikusiz. Baina, ohituta gaudeenez, Erronkari gazta urtez urte nola garatzen den ikusten joan gara». Etorikizun ona ikusten dio, kalitatea bermatuta duelako aspalditik, eta, artistek dioten bezala, iristea baino zailagoa delako eustea.

«Bertako kalitatezko produktuen alde apustu egiteak landa eremuko biztanleriari eustea dakar. Horren kontzientzia hartu behar du jendeak», defendatu du Mikel Arnarezek

Gaztaz harago, orokorrean Nafarroako tokiko ekoizpena gero eta handiago dela jakinarazi du hornitzaileak. «Bertako nekazaritza elikagaien industria hagit indartsua da»



SASOIKOA

ERRONKARI GAZTA



Ezker-eskuin, Iban Bengoa, Txabeli Sierra, Maitane Bengoa eta Eider Bengoa, Tolosan. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

infraganti DARDARY

Musikarik gabe ez dute bizitza ulertzen. Musika klasikoa, bluesa, folka, jazz... denetarik irteten da Dardary taldeko gitarra eta biolinetatik. Horien atzean, Iban Bengoa, Maitane eta Eider alabak, eta hauen biolin irakaslea, Txabeli Sierra. Proiektua orain urtebete jarri zen abian, eta, hamaika emanaldiren ondoren, lehen diskoa labetik atera berri dute.

Musikarekin gozatzten dute, a z a l d u edo deskribatu ezin daitekeen modu batean. Neurria hartzeko hobe da hitzak alde batera utzi eta sortzeko gai diren musika entzutea, baina, momentuz, ezinezkoa da lerroon bidez nota musikalak igortzea. Hori bai, erreportajea irakurtzen amaitutakoan sarean kuxkuxeatu, bilatu “Dardary” izena eta ikusi. Hobe, entzun.

Taldeak lau kide ditu, eta tar-tean bada bitxikeriarik. Izan ere, taldekideak Eider eta Maitane Bengoa ahizpak (8 eta 10 urte), hauen aita, Iban Bengoa, eta, haien biolin irakaslea, Txabeli Sierra, dira. Adin ezberdintasuna badago, baina aldi berean ez dago, musika muga guztiak gainditzeko, ezberdintasunak lausotzeko gai delako. Taldeak ederki funtzionatzen duela diote. Eta epe motzean jasotako fruituek frogatzen dute hori: emanaldiak kalean zein lokale-tan eta lehen diskoa grabatuta.

Goazen, hala ere, hastapenertara. Umeak izan arren, oso tre-beak dira biolina jotzen Bengoa ahizpak. Aitak kontatzen due-nez, Suzuki izeneko metodolo-giarekin ikasi dute. Jatorri japo-niarraren duen ereduak dioenez, ez gara talentuarekin jaiotzen, bai-zik eta garatu egiten dugu. «Ama hizkuntza ikasten dugun bezalaxe –dio Iban Bengoak–. Umeek esfortzurik gabe ikasten dute, jaioberri direnetik entzu-tzen dutelako».

Suzuki metodoarekin umetan hasi beharra dago, gero eta lehe-nago hobe, burmuina «biguna» dagoelako. Batzuk 3 urterekin hasten dira, baina beste asko 4 edo 5 urterekin. Eider eta Maita-ne 3 eta 4 urte zituztenean hasi ziren. «Astean behin joaten gi-nen Donostiara, baina etxean egunero-egunero entzun behar da ikasi beharreko kanten dis-koa. Haiekin gurasoetako batek egon behar du, beraz, inplika-zioa eta dedikazioa eskatzen di-tu, bai umearen aldetik, bai hel-duaren aldetik ere», azaldu du Ibanek. Adibidez, goizean, jaiki-tzean, ikastolara joateko presta-tu eta gosalduta bitartean, diskoa martxan egon ohi zen etxean.

Lehenengo bi hilabeteetan, umeak hain txikiak izanik, ge-zurrezko biolin bat erabiltzen dute; maketa moduko batekin aritzen dira soilik, biolina nola eusten den ikasteko, horretara-ko ere oso instrumentu «exijen-tea» omen delako.

Bengoatarren etxean musika-rekiko zaletasuna aurreko be-launaldietatik dator, izan ere, Ibanen aitak soinua jotzen zuen. Ondoren lekukoa Ibanek hartu zuen, gitarra eta mandolinare-kin, eta orain alabek. Aitziber emazteak ere gustuko du musi-ka. Hala ere, musikan jantziak ez diren gurasoak euren seme-alabei ikasketotan laguntzeko gai berdina berdina direla argi utzi nahi du Ibanek. Suzuki me-todoaren urratsak jarraitu bes-terik ez dago.

MUSIKAREN AURPEGIRIK GOZOENA

Entseatzen eta ikasten ordu as-ko eman dituzte azken urteotan Eider eta Maitanek eta, nolabait, musikaren alde gogorra edo neketsuena bizi izan dute. Baina hori baino askoz gehiago badela dio haien aitak, gozatzea eta go-zaraztea, hain zuzen. Bideguru-tze horretan sortu zen Dardary. «Umea nintzela gauza bera bizi izan nuen nik. Solfeoa, kontser-batorioa, etxean ikasi, entse-guak, gauzak behin eta berriro errepikatu... lengoia musika-la deitzen zaio horri. Maila jakin batera ailegatu nahi izanez gero beharrezkoak dira, noski, eta ados nago, baina askotan ahaztu egiten zaigu atal gogorra oreka-tu egin beharra dagoela goza-menarenarekin. Nik soinua ikasi nuen, eta azkenean utzi egin nuen», gogoratu du.

Gozatzeko eta gozazarazteko taldea sortzea. Txabeli Sierra irakasleak umeak gai ikusi zi-tuen kalera ateratzeko eta aurre-ra egin zuten. «Musika parteka-tzea da politena, nahiz eta jendaurrean jotzeak ere baduen bere zailtasuna. Musika eskola-tan neurri batean hori falta dela uste dut», iritzi du aitak.

Kaleko lehenengo emanaldia maiatzean eman zuten, Donos-tiako Bretxa azokaren inguruan, eta esperientzia oso ona izan ze-la diote. Eider eta Maitane batez

ere jendearen aurpegiez oroitzen dira. «Esfortzua da, lana egin behar da, baina jasotzen duguna asko da, eta horrek me-rezi du», dio Maitanek. Txikienak eransten du musika ezin dela «zentzurik gabe jo», baizik eta «ondo pasatzeko» egin behar dela.

BLUESA, JAZZA, FOLKA...

Emanaldi batzuk eman dituzte dagoeneko kalean, beti Donostian, baita taberna edo lokal ezberdinetan ere, hiriburuan bertan nahiz jaioterri eta bizileku duten Tolosan. Saioetan Dardary talde gisa prestatu dituzten kanta eskaintzen dituzte, diskoan bildu dituzten abesti berberak, alegia. Eta estiloari dagokionez, oso zabala da: folk tradizionala, irlandarra, eskoziarra eta amerikarra, baina baita XX. mende hasierako jazz moduko bat ere, ragtime delakoa. Bluesarekin ere ausartu dira. Horrekin frogatu nahi dute biolinak hamaika estilo onartzen dituela eta abanikoa oso zabala dela. Musika klasikoa baino askoz gehiago sor dezake. Are gehiago, «sormenak uzten dizun guztia», Ibanen ustez.

Kontserbatorio eta musika eskoletan, ohi denez, musika klasikoa irakasten zaie ikasleei; «eta zoragarria da, beharrezkoa da hura ikastea, batez ere biolinista profesionala izan nahi duenarentzat –dio Ibanek–, baina ez da hori bakarrik». Elkarrizketaren une honetan alabek aitzak jazzagatik duen zaletasuna aipatzen dute, eta gogorarazten diote eurak Ken Zazpi bezalako taldeekin ere asko gozatzen dutela. Hortxe utzi diote harritxoaitari. Umeen egarria, errepertorioa zabaltzeagatik, amaigabea dela dio orduan aitzak. «Etengabe abestiak errepertoria gehitzeko prest dira...». Momentuz, ordubeteko iraupena du eskaintzen duten abesti sortak, baina etxean abesti berriak probatzen dituzte, baita abestu ere. Horretan dabil Eider. Kantari fina ere badela erakutsi digu.

Hain epe laburrean, urtebete eskasean, hona ailegatu izana bururatu ere ez zitzaizen egin kalera lehen aldiz kalera irten zire-



Maitane, ezkerrean, eta Eider, eskuinean, beren biolinekin.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

nean. «Helmugarik gabe hasi ginen eta hala jarraitzen dugu, ez dugu pentsatu ere egiten hemendik urte batzuetara non egongo garen, edo hilabete batzuk barru... Ez dakigu. Muga, besterik gabe, ondo pasatzea da. Alabei esan ohi diet helburua ez dela profesionalak bihurtzea».

Diskoa egiteko aukera Flavio Banterla musikari eta konposatzailearen eskutik heldu zitzaizen. Esne Beltzarekin aritu da besteak beste italiarra. Hala, oraingoz lehengo lan honetan abesti ezagunen bertsioak daude, gehienak beraien egindako moldaketekin. Internet bidez eskura daiteke diskoa. «Lan guztia instrumentala da, ez dugu abesteko ezer landu. Mundu hori oso zabala da, eta, nahi izanez gero, hortxe dago, baina horrek lan asko exijituko liguke. Are politagoa litzateke, noski, geure abesti

propioak egitea, baina beste dikazio bat eskatzen du eta momentuz... Gauzak disfrutatu egin behar dira. Maila horretara heldzerik badago, baina zein preziotan?», galdegin du. Maitane eta Eiderrek musika ikasketak hasi zituztenean ezarritako maila eskuratu dutela-eta, garrantzitsuena dakiten hori aprobe txatzea dela uste du Bengoak. Gero gerokoak.

Tolosako Box.a arte elkartean

eta Donostiako Etxekalte tabernan jotzeak, baita hedabideetan agertu izanak ere, taldeari nolabaiteko sona eman dio, eta, hala, kaleko emanaldiez gain, ezkontza batean ere jo berri dute. Taberna ezagun

batek ere eskaintza egin die udazken eta neguko asteburuetan jotzeko, baina ezekoa eman dute lotura handiegia delako, eta hori ez da Dardaryren filoso-

fia. «Umeak dira», hori da kontuan hartu behar dena aitaren hitzetan, eta lehentasunak daude: eskola, lagunak, musika... eta, aurtan, Maitaneren zat, baita arrauna ere. «Erritmoa beraien markatzen dute, eta sekulako ilusioa zuen arraunean hasteko. Segi bada!», dio aitzak.

BIDAIAK ETA AMETSAK

Taldean jotzea irakasgai ona da beti, baina honakoan esperientzia pertsonal aparta ere izaten ari da. Aitarentzat «izugarri polita» da alabekin jotzea, eta, haultzat, «oso berezia».

Eta bidaiatu asko bidaiatzen dute, umeek behintzat bai, irudimena bor-bor dutelako. Jotzen duten artean, Maitanek, adibidez, zelai zabalak imajinatzen ditu, zuhaitzak dantzan, eta, batzuetan, Kursaal jauregian ikusten du bere burua. Aretoa lepo dago. Bada guk ere Dardaryren bidaiatu nahi dugu. Maitanek biolina eskuarte du eta arkuak ez ditu sokak apenas lantandu, baina bagoaz zelai berde batean barna, haizeak aurpegia lantantzen digula...

Oihane Larretxea de la Granja

**Olatz Arbelaiz**

EHUko Informatika Fakultateko irakaslea

IEB 2015: Amesten al dute androideek ardi latx elektrikoekin?

Ausartuko al gara aurtengo Informatikari Euskaldunen Bilkuran izenburuko galderari erantzuten? Eta hori gertatuko dene-ko data jartzen? Historiak dio ez garela hain iragarle txarrak, beraz, agian, egin dezakegu saiakera.

Duela ia hogeitaz euskara ez zen berria informatikarion artean, urteak ziren UEUn euskaraz emandako eskolen ondotik, Donostiako Informatika Fakultatean hainbat irakasle klaseak euskaraz ematen hasi zirenetik eta jada argitaratuta zegoen UZEIrekin elkarlanean egindako informatika hiztegia. Hala ere, informatikaz, informatikan eta informatikarekin euskaraz egitea erronka zen oraindik. Kezka horrek bultzatuta, 1996ko azaroaren 22an antolatu zuen UEUko informatika sailak informatikari euskaldunen lehenengo topaketa. Aldi hartan ekitaldiko gai nagusia uneko euskarazko softwarea izan zen, eta, antolatzaileok 50 pertsona inguru espero bagenituen ere, 135 hurre-ratu ziren. Horrek, eta hurrengo ekitaldietan parte hartzea handiagotzeak, argi adierazi zuten gizartean kezka bazegoela, eta, hala, komunitatea sortze-ri bide eman zitzaion. Topaketara euskarazko software publikoa zein zabalpen mugatuko softwarea ekoizten zutenak gerturatu ziren eta euskaraz ekoizitako 30 produktu inguru ikusgarri izan genituen.

Garai hartan labetik atera berri zeuden Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografiko ezaguna eta, Eusko Jaurlaritzak ordainduta, eta UZEI eta Elhuyarren lankidetzaz euskaratuta, Windows 95 eta Word 6.0. Programa horiek euskaraz erabili ahal izatea garai berri baten hasiera bezala defini bazitezkeen ere, hutsune askorekin zeterren. Alde batetik, informatikari euskaldunon artean bazegoen erdarazko produktuak nahiago zituenik: ulergarriagoak eta bertsio aurreratuagoak beti eskura; eta bestetik, Lakuak euskaratzeko hainbeste milioi gastatu ondoren, eskoletara, D ereduak barne, ordenagailu berriak banatzean erdarazko bertsioa bakarrik bidaltzen zuen.

Orduz geroztik, beste zortzi bilkura izan ditugu gaiak uneko joeretara ekoitu direlarik: “Euskara eta Internet”, “Informatikaren irakaskuntza eta informatika irakaskuntzan”, “Informatikaria gizarte elektronikoan”, “Softwaregintza- ren erronka berriak”, “Web 2.0 hemen”, “Teknologia berriak gaur eta bihar”, “Gizarte sareak” eta, azkena, “Telefonoak eta informatika”.

Zerrenda irakurtze hutsak adierazten du, nolabait, informatikan euskaraz ari- tzen den komunitatearen kezka ez di- rela beste edozein hizkuntzatan ari- tzen direnen desberdinak gai nagusiei dago- kenez, eta, urtez urte bertan parte har- tu dugun batzuentzat behintzat, ten- dentzia markatu duela Informatikari Euskaldunen Bilkurak.

Esperientziak erakutsi digu bilkura iragarle edo eta eragile izan dela informatikak eus- kal munduan izan duen garapenean. Hala nola,

lehenengo bilkuran be- harrezkotzat identifika- tu zen garai hartan bule- goko tresna estandar bihurtzen ari zen MS Of- fice paketea euskaratzea eta, gaur egun, sistema eragilea, bulegoko apli- kazioak eta beste hain- bat euskaraz edukitzea arrunt bilakatu da. Ezin ahaztu, noski, software libreak eta komunitate- en lanak horretan izan duen eragina. Bigarren ekitaldian, aldiz, gaia “Euskara eta Internet” izanik, ondorioen arte- an zerrendatu genuen Euskal Herrirako web- domeinu bat lortu be- harko genukeela. Bide luzea izan da baina .eus domeinua eskuartean dugu gaur egun.

Lehenengo ekitaldi haietatik hona garapena nabarmena izan da. Al- de batetik, forma kon-


tuek (topaketa izatetik bilkura izatera pasatzea eta 2005. urtetik aurrera Mira- mon Enpresa Digitala batzea antolakun- tzara), eta, bestetik, jorratutako gaiek adierazten duten eboluzioa. Aurtengo ekitaldiaren gai nagusia, robotika, izan liteke horren adierazle, baina hutsuneak ere nabarmenak dira oraindik eta ba- daukagu non lan egin.

Anima zaitez eta erreserbatu agendan azaroaren 12a, IEB15era (<http://www.unibertsitatea.net/blogak/ieb2015/>), Donos- tiako Teknologi Elkartegira, etortzeko. Bertan parte hartuz, robotikaren mun- duaren gaineko ezagutza zabaltzeaz gain, informatikan euskaraz jarduteak berezko dituen gorabeheraz aritzeko au- kera ere izango duzu, eta, nork daki, etorkizuna iragartzen duen komunitate- ren parte ere bihur zaitezke. •



BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



GREGORIO GONZALEZ GALARZA

ITSASOAREN INDARRA, MAREA BIZIEN SASOIAN ARGAZKIETARA ERAMANA

Udazkena izan ohi da marea bizen sasoia. XIX. mendean hasi zen Gustave Le Gray argazkilari frantziarra olatuen indarra argazkietara eramaten. Donostia eta Biarritzen hartu ohi zituen irudiak, eta beste hainbat argazkilari frantziar gehitu zitzaizkion bizkor itsaso zakarrari eta olatuen kolpeei argazkiak ateratzeko jardunera. XX. mendean sar-tzearekin batera bertako argazkilariak hartu zieten lekua frantziarrei, tartean Gregorio Gonzalez Galarzak. Donostiaren kasuan, Pasealeku Berria bilakatu zen olatuen ikuskizuna mirestekoa argazkilarien eta publikoaren leku kuttuna. Batez ere olatuen ikuskizuna erretratatzeko duten Gonzalez eta bere seme Carmeloren 2.000 argazki gordetzen dira San Telmo museoan.

**OPARIA
ZIUR***

GARA
hitz-jokoa

3. joko IGANDEA 1



mugaritz

NOLA PARTE HARTU?

1• Lortu zure kartilla:

Igande honetako GARAn topatuko duzu.

2• Osatu ezazu:

Astelehenetik ostegunera (azaroak 2, 3, 4 eta 5) denbora-pasa bat argitaratuko dugu GARAKo azken orrialdean. Denbora-pasa bakoitzaren emaitza kartillan ipini.

3• Kioskoan entregatu:

Kartilla osatua duzunean lehenbailehen kioskora eraman edo bidal diezaguzu postaz.

LORTU ZURE
KARTILLA
IGANDEA 1
GARA-REKIN

Irabazleen izenak azaroaren 15ko GARAn argitaratuko ditugu. Zorte on!

1 ASTEA

Kartilla
Urriak 18
Denbora-pasak
Urriak 19, 20, 21 eta 22

Sariak

- Bi pertsonentzako itsasbidaia Mediterraneotik barrena
- Iphone 6 edo Samsung Galaxy S6 Edge
- Mugaritzen 2 pertsonentzako bazkari edo afari bat
- Bi pertsonentzako asteburua nekazaletxe batean



2 ASTEA

Kartilla
Urriak 25
Denbora-pasak
Urriak 26, 27, 28 eta 29

Sariak

- Ipad Pro, Ipad Air 2 edo Ipad mini 4
- Arzaken 2 pertsonentzako bazkari edo afari bat
- Bi pertsonentzako asteburua nekazaletxe batean
- 15 XXL harpidetza



3 ASTEA

Kartilla
Azaroak 1
Denbora-pasak
Azaroak 2, 3, 4 eta 5

Sariak

- Bi pertsonentzako 2 hegaldi Europara
- Kindle paperwhite eta Libbuk 2
- Bi pertsonentzako asteburua nekazaletxe batean
- 15 XXL harpidetza



***OPARIA ZIUR:** 3 kartillak osatuz opari bat jasoko duzu etxean. Sari potoloak tokatu ala ez.

